


# ARRASATE

## PRESS

Arrasate 1991ko Apirilak 19, 103. zenbakia

Udalaren laguntzarekin eta AEDren ardurapean




**XABIER LASAGA,**  
Udal  
Hazlenda  
Batzordeburu

1991.eko  
astea

Lurumbata  
Igarria

1991ko AURREKONTUAK  
ZIRRIBORROA



# Aupa trikitixa

Arrasateko Trikitilari Eskola

**LETRAKIT**  
erakusketa ibiltaria

Arrasaten  
Apirilak 19-24  
Biteri aparkalekuan



# LETRAKIT


erakusketa ibiltaria

Arrasaten. Apirilak 19-24. Biteriko aparkalekuan

## Lehen




Garibai



Pedro Barrutia




Sebero Altube




Jokin Zaitegi


## Gaur




J. M. Velez de Mendizaba



Iñaki Mendiguren



Gerardo Markuleta



Jon Iñaki Lasa

## Bihar



Etorkizuna  
euskaraz dator





# ARRASATE PRESS

ASTEKARIA

## Argitaratzailea:

Arrasate Press taldea (AED)  
Azoka kalea 1, 20.500 ARRASATE.  
Tfnoa: 77 05 65

## Laguntzailea:

Arrasateko Udala

## Zuzendaria:

Joxe Aranzabal

## Erredakzioa:

Beñardo Kortabarria. Arantzazu Loidi

## Publizitatea eta harpidetzak:

Josune Biteri  
Tfnoa: 77 08 15

## Maketazioa:

Goio Arana

## Erredakzio-kontseilua:

Jose Felix Diaz de Tuesta, Harry Zaraia, Iñaki Mendiguren

## Kolaboratzaileak:

Josemari Velez de Mendizabal, Mikel Irizar, Karmele Zuazubiskar, Patxi Montero, Juan Martin Elexpuru, Eukeni Olabarrieta, Arantxa Lizaso, Gerardo Markuleta, Estepan Plazaola, Jesus Mari Garai, Juanito Leibar, Jerardo Elortza, Blanka Jauregi, Klarion Taldea, Joseba Vallés, Karmelo Uribarren, Iñaki Aranburu, Hankamotz, Maite Toledo, Atalataikoan, ASA taldea, Xabin Arrieta, Txipi Ormaetxea, Arantxa Ozaeta.

## Inprimategia:

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati)

## Banaketa arduraduna:

J. L. Arejolaleiba

## Copyright:

ARRASATE PRESS

Tirada: 7.000 ale

Lege-Gordailua: 1124/88

ISSN: 0214-4654

Frankeo kontzertatua: 37-60

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta eritzien erantzunkizunik.



ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

# Basoak, altxor hori

**A**zken euri jakas izan direla eta, harro harro ageri zaizkigu ibai eta errekek, zenbait lekutan euren onetik atera direlarik, jende askorengan 1983ko abuztuaren mamua berpiztuz. Ur jarioetako itxuraldaketa azkar eta arduragarri horren harira etorri dira zenbait agintariren aitorenak eta horietako batek -Zibil Babeserako zuzendariak, hai zuzen- iragan udako gure basoen erreketei leporatu die uberketako igoera.

Baliteke horrela izatea eta baliteke ere zuzendari horren jaurlaritzakideek ontzat ematea haren baieztapena. Horrela balitz hainbat hobe, izan ere aburukidetzak agintariak orbita berebanean dabilzala adieraziko bait luke. Nora nahi dudana joan? Erraza da; basoak gure ondare naturalaren elementu ordezkazekin ditugu. Eta, inori ez zaio arrotz egiten, gure basoen desagerpenak ekologi oreka arriskutan ipintzen du. Mendi ekosistemak ikaragarriko aldaketa jasan du azken urteotan, mendeetako egoera naturala zeharo bestelakotuz.

Baso naturalaren mitoa hil omen da; nekez aurki genezake Euskal Herri osoan gizonaren eskuak "ukitu" ez duen basorik. Denak dira-diogu-

artifizialak, gizonaren irabazpiderako egokituak. Horrek zera esan nahi du, baso politika zeharo beharrezkoa dela. Gu, gizonon bizimodua osasuntsuago eta kalitate handiagokoa egingo digun baso-politika horren egituraketa gure esku dago. Eta premia hori mugatuko duen arautegiak kontuan izan beharko du, ezpairik gabe, gure basoetako genetika desberdintasunaren iraupena. Negargarria bait da, nola -urrizten ez ezik- pobretzen ere ari zaizkigula ikustea.

Hizki handiko politika Jaurlaritzari egoki dakioketen arren, gure udalek asko egin dezakete gure basoen alde. Zenbait udal arautegitan -iragan mendeko Aramaiokoan, adibidez- espezie autoktonoen birlanaketa agintzen zitzaion udal mendietan, bere lursailetan pinua sartu nahi zuenari. Basoek gure bizitzari ekar diezaioketen ongizateaz ados baldin bagaude, udal gizonek seriotan hartu beharko lukete gure mendietan egin daitekeen lana. Ez dezatela pentsa, arren, dena goiko instantzietatik eginda etorri behar zaigula... Horrela uste izanez gero, basorik gabe gera gintezke formulak iritsi baino lehen.


*Josemari Velez de Mendizabal*

**UGARAN  
jatetxea**

Garaerissa ezuea - 1/787854 Arrasate

**enpresa  
bazkariak  
eta famili bilerak**





**gili gili**

Iturriotz 9, Tfnoa: 79 94 57

**HIRE**

**Liburu eta oparidenda**

Iturriotz 4, Tfnoa 79 14 84

**ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA**

Zerbitzuak:

- \* Diagnostikoa - Orientazioa
- \* Estimulazio goiztiarra
- \* Erreabilitazio funtzionala (Psikomotrizitatea eta hizkun berreziera)
- \* Logopedia
- \* Laguntza terapia
- \* Mota guztietako eskola arazoak, enuresia (Ohe bustitzea), eukopresia

Ignazio Zuloaga kalea 10  
ARRASATE TFNOA: 79 48 77

**MUSAKOLA**

**OSTATUA**

**Taberna**  
**Jatetxea**  
**Bazkariak**  
**Bodak**  
**Banketeak**  
**Gelak**

Gipuzkoako Etorbidea z/g  
Tfnoa: 79 20 50

**Zinean hotz**

Irakurle agurgarriok:  
Joan den ostiralean, apirilak 5a, gaueko hamarretan, Arrasateko Alai zinemara *El Padrino* filma ikustera joan nintzen. Kalean oso eguraldi txarra, zinema barruan txarrago.

Ez zegoen berogailua pizturik eta han zegoen jendea beroki eta anoraka-rekin estalita (manta moduan) hotza hobeto pasa ahal izateko.

Azkenaldian sarritan joaten naiz zinema horretara eta normalki kriston hotza egiten du. Jende pila batekin komentatu dut eta denok eritzi bera dugu, eguraldi txarra egitekotan, Alai zinemara joan baino lehen hobe da bi aldiz pentsatzea.

Arazo honek izango du konponbiderik?

Begirunez:

*Zinezale batek.*

**Lancaster-etik itzulian**

Kaixo Arrasate! Espero dut gogoratuko duzuela nola hilebete pare batzuk dela Estatu Batuetatik gutun bat iritsi zitzaizuen. Beno, gutun horretan, berriro idatziko nuela esan nuela uste dut. Esan nuen bezala, hemen nago berriro ere hemengo berri emateko asmotan. Zortzi hilabete "Ameriketan" igaro ondoren, gauza asko ikasi ditut estatubatuarrei buruz. Oraindik beste hiru hilabete ditudan arren, uste dut gertu nagoela Arrasateko lagun minekin berriro elkartzeko.

Esan dudana bezala, estatubatuarrei buruz gauza asko ikasteko aukera izan dut egonaldi luze honetan. Gauza batzuk onak, bete asko ez hain onak. Baina orokorrean, oso inpresio ona daramat amerikarrei buruz esteialdi honetatik bueltan. Bizikizun interesgarriena Pertsiar Golkoko Gudari buruzkoa dela uste dut. Ez dakit nolako inpresioa eman zuten amerikarrek European, baina nik barrutik ikusteko aukera izan nuen, eta esan beharra daukat beraien gerrari buruzko erreakzioa nahiko harrigarria iruditu zitzaidala. Guda hasi baino lehenago mugimendu asko zegoen Bake eske,

jendeak ez zuelako Vietnam bezalako beste gudarik nahi. George Bush-i "esker", hala ere, gudara joan ginen eta jendearen eritzia nahiko aldatu zen: "Gudan gaudenez gero, beranduegi da Bakea lortzeko, beraz lagun ditzagun soldaduak ahal den bezain azkar etxera itzul daitezten". Hau zen jendearen eritzi orokorra, eta bakearen aldeko mugimendu guztiak ahaztu ziren, eta EE.BB.ak "patriotismo" ustel batetan murgildu ziren. Demasekoak ziren amerikar banderak alde guztietan: etxe, eskola, erropa, liburu, txikle, eta baita hanburgesetan ere, edozein lekutan zegoen (eta oraindik dago) amerikar bandera bat.

Hala ere, guzti honetan badago alde on bat: harritu egin ninduen nolako elkartasunean bizi diren estatubatuar guztiak, nazio bakar sentitzen dira, denak elkaturik, eta hori errespetatu beharra dugu. Batzuetan pentsatzen dut nolako ederra izango litzakeen Euskal Herri osoa horrela elkaturik biziko balitz. Dena dela, estatubatuarrek ez dira hain txarrak.

EEBBetan emandako urte hau oso aberasgarria izan zait. Oraindik denboralditxo bat daukat itzuli baino lehen, baina banago irrikitan Arrasate berriro ikusteko. Gutun hau batez ere nire lagunei zuzendua dago. Idatzi izan ez badut ere, ez zaituztet ahaztu eta espero dut zuek ere ez zaretela nitaz ahaztu: Gaizka, Eider, Mirian, Larri, Kristina, Saioa, Natali, Monika, Ainhoa, Gentzane, Nerea, Haritz, Moral, Torres (Txepa), Martin, Amaia, Rossana, Azu, Alberto, Yenes, David, Arantxa, Aitor eta aipatu ez ditudan beste guztiei besarkada bero bat. Maite zaituztet denak (Sí, Torres, a ti también, no me llores, hombre).

Baina gutun hau bereziki nire gurasoei zuzendua dago. Zuen laguntza gabe ez nintzateke hemen izango. Benetan eskerririk asko. Musu handi bat. (Zuri ere bai, Xabi).


Azkenik eskerrak Arrasate Press-i, astero beraien publikazioaren ale bat bidaltzeagatik.

Hurrengo arte, Arrasate. Uztailaren 2an han izango naiz bueltan.

*Esteban Umerez*



# Botua ematerakoan, Gotzaien aholkua kontuan izaten duzu?



**Martín Lázaro**  
(Jubilatua)

Normalean bai. Entzun eta kontuan hartzen dut esaten dutena.



**Edurne Magunazelaia**  
(Etxekoandrea)

Ez, benetan ez. Sinistu egiten dut, baina pentsatzen dut hori beste gauza bat dela, aparte.



**Isabel Urkiola**  
(Etxekoandrea)

Ez asko. Ník baditut neure ideiak eta eurak oso gogor daude eurenetan. Nire eritziak ditut eta adierazi egiten dut.




**Josu Buldain**  
(Ikaslea)

Ez. Ez zait iruditzen esaten dutena... Apaizetanez dut sinesten.

# LENIZ

## AUTO ESKOLA



**GIDA-BAIMEN GUZTIAK ZURE ESKU!**

**ARRASATE - ESKORATZA**

## Memesa

**79 42 22**

## KOPIOTXOA

*Fotokopiak*

*Planu-Erreproduzioak*

*Enkuadernazioak*

Zarugalde 28, Tfnoa: 79 17 82  
ARRASATE

**ELEKTRONIKA  
ARTIKULUEN  
SALMENTA**

# BAZAR

TOKI ON

J. Carlos Guerra 1, Tfnoa: 79 91 64

## Monte taberna

Maalako errabala 11, Tfnoa: 79 20 56



## BEHARREZKO TELEFONOAK

### ERITETXEAK

Arrasateko Eskualde-Ospit. ....	79 53 00
Igualatorria .....	79 05 00
Santa Agedako Ospitalea (gizonak) .....	79 39 00
(emakumeak) .....	79 44 11
Buru osasunerako zentrua .....	79 90 11

### GURUTZE GORRIA

Bergara .....	76 55 76
---------------	----------

### DYA

Antzuola .....	76 62 91
----------------	----------

### ANBULATORIOAK

Arrasate (Especialista) .....	77 12 64
(Txanda hartzeko) .....	77 03 46
Oñati .....	78 08 52
Eskoriatza .....	79 98 58
Aretxabaleta .....	79 74 58
Aramaio .....	(945) 45 51 16

### ANBULANTZIAK

Gipuzkoako ambulanziazak .....	45 87 44
--------------------------------	----------

### UDALTAINGOAK

Oñati .....	78 04 11
Bergara .....	76 14 69
Arrasate .....	79 14 39
Aretxabaleta .....	79 10 52
Eskoriatza .....	79 03 22

### ERTZAINZIA

Arrasate .....	79 71 99
----------------	----------

### SUHILTZAILAK

Udal taldea .....	79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua .....	79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea .....	78 28 00

### MATXURAK

Urak (udal zerbitzua) .....	79 09 00
Elektrizitatea (Iberduero) .....	79 05 81
Gasa .....	900 40 05 23
.....	79 78 44
.....	79 76 78

### GARRAIOAK

Taxiak .....	79 12 22
P.E.S.A. ....	79 14 19

### HIRUGARREN ADINARENZAKO ZENTRUAK


Iturbide Egoitza .....	79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza .....	79 81 57

### KONTSUMITZAILEARENZAKO INFORMAZIOA

Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarte .....	79 87 77
KIUB-OMIC .....	79 51 55

### MONTEKONGO LIBURUTEGIA

Monterron .....	77 01 05
-----------------	----------



## 19

### OSTIRALA

• • •

- Zinea: Amaia. "Cuentos inmorales", gaueko 10.30etan.

Alai. "Postales desde el filo", 7 eta 9.30etan.

- Letrakit erakusketaren hasiera, Biteri aparkalekuan.
- Goardiako farmazia: Amezua, Santamaina.

## 20

### LARUNBATA

• • •

- Zinea: Alai. "Postales desde el filo", 5, 7.30 eta 10.30etan.

Txistu Kontzertua, Amaian, arratsaldeko 8etan.

- Altamirako jaiak: suzirien jaurtiketa, dultzaineroak, marrazki txapelketa, dantzariak, eta Eguzki taldearekin dantzaldia.

## Kirol Agenda

### FUTBITOIA

• • •

- Zaldibarko frontoian Adelaida eta Bar Kajoi taldeek Zaldibarko Futbito Txapelketako finala jokatu dute, larunbatean arratsaldeko 5etan.

### SASKIBALOA

• • •

- Centraljet Euskal Air eta Tabirako taldeen arteko partidua. Musakolako kiroldegian, larunbatean arratsaldeko 6etan.

- Moda Jaialdia. Amaian, gaueko 10.30etan
- Goardiako farmazia: Aurora Ruiz, Maala.

## 21

### IGANDEA

• • •

- Zinea: Alai. "Postales desde el filo", 5, 7.30 eta 10.30etan.
- Trikitilari gazteen txapelketa, Aramaioko frontoian, arratsaldeko 6etan.
- Goardiako farmazia: Morales, San Andres.

## 22

### ASTELEHENA

• • •

- Zinea: Alai. "Postales desde el filo", 7 eta 9.30etan.
- Yoga ikastaroaren hasiera, Yoga elkartearen.
- Hitzaldia, "Kontsumo hezkuntzaren helburuak", San Vitorren, arratsaldeko 6etan.
- EMK-LKI partiduaren zerrendaren aurkezpena

Udal pleno aretoan. 6.30etan.

- Tere Ormaetxearen zeramiken erakusketa Monterronen.
- Goardiako farmazia: Azkoaga, Ferrerías.

## 23

### ASTEARTEA

• • •

- Zinea: Alai. "Postales desde el filo", 7 eta 9.30etan.
- Hitzaldia, "KDOren analisisa arloka", San Vitorren arratsaldeko 6etan.
- Hitzaldia, "Alemania, gaur", Eskola Politeknikoan arratsaldeko 7.45etan.
- Hitzaldia, "Agroturismoa", Monterronen arratsaldeko 7etan.
- Goardiako farmazia: Español, Iturriotz.

## 24

### ASTEAZKENA

• • •

- Hitzaldia, "Unitateen diseinu-eskema", San Bitorren arratsaldeko 6etan.
- Hitzaldia, "Orereta-Nepal bizikletaz", Eskola Politeknikoan arratsaldeko 7etan.
- Goardiako farmazia: Corcuera, Musakola.

## 25

### OSTEGUNA

• • •

- Hitzaldia, "Publizitateari buruzko unitate didaktikoa", San Vitorren arratsaldeko 6etan.
- Goardiako farmazia: Irizar, Erguin.



## Liburuak

### • Administrazio-lanerako oinarrizko euskara ikastaroa.

"Azken urteotan, etengabe-ko ahaleginak burutu dira Herri-Administrazioetan euskararen erabilera normaltzeko asmoz, dela araudi bidez, dela egitamu zehatzen bidez. Honen ondorioz, lanpostu bakoitzari ezarri zaion "hizkuntza-eskalkizuna" (hizkuntz perfila) dugu aipatu plangintzaren ardatz..." dioskue egileek liburuaren atarikoan.



Liburua eskuratu nahi izanez gero, 1.500 pta. balio du, zuzendu Oñatiko HAEera, 78 20 00 edo 78 20 11 telefonotara deituz.

## Ikastaroak

### • Yoga Ikastaroa

Arrasateko Yoga Elkarteak bi ikastaro antolatu ditu, bata umeentzat eta bestea adinekoentzat. Umeentzat antolatutako ikastaroa ostiraletan burutuko da, arratsaldeko 7etatik aurrera; adinekoentzakoak berriaz, astelehena eta asteazketan, goizez zein arratsaldez, ekainaren 19ra arte.

Emandakoa baino informazio gehiago nahi duenak, 79 35 76 telefono zenbakira deitzea



## JAIALDIAK

### II. Moda Jaialdia

Amaitu antzokian konponketak zirela eta aste batzuz atzeratu ondoren, aste honetan izango da azkenik, Arrasateko II. Moda Jaialdia. Mambo Nº 1 taldeak bigarren aldiz antoaltzen du jaialdi hau, lehenak izan zuten arrakastaren ondoren, udazken negurako jantziaren espero diren joerak aurkeztuko dizkigute.

Erakusketan zehar herriko denden jantziak ikusi ahal izango dira, Astore markak 91-92 udazken negurako prestatuak dituen kirol jantziekin batera. Iazkoan gertatu zen bezala, diseinatzaile berriekin egindako jantzi diseinuen lanen erakusketa egingo da, eta aurtengo berrikuntza bezala, etorkizuneko jantziak lehiaketa ikusgai. Azken ideia horrek berebiziko ikusmina sortu duenez, betekada espero da.

Amaitu antzokian, apirilaren 20an, gaueko 10.30etan. Sarrera: 500 pta.

bestarik ez dauka.

• **Kontsumo ihardunaldiak**  
Irakaskuntza ertainetako eta OHOkoi goi-zikloko irakasleei zuzenduta, Arrasateko Kontsumitzaileen Informaziorako Bulegoak, kontsumitzaileen hezkuntzari buruzko ikastaroa antolatu da. Ikastaro honen helbururik aipagarriena eskolan kontsumoa lantzeko lan-metodo egokienak ezagutzeko litzateke. Ikastaroaren egitarauaren barruan lau hitzaldi antolatu dira, kontsumitzaileen hezkuntza, gaien azterketarako teknikak, kotsumo-hezkuntzaren helburuak, eta publizitateari buruzkoak hain zuzen.

Hitzaldi guztiak San Viator Ikastolan emango dira, lehena astelehenean delarik, arratsaldeko 6etatik 8etara bitartean.

## Bertsokak

### • Apotzagan Leintz bertsotan

Bildotsa, tripotzak... urteroko afari ederra izango da asteko, iluntzeko 8,30etan hasita.

Aurtengoa ez da txapelketa izango. Leintz Bertsotan izenarekin, bertso saio bikaina hasiko da afalostean, Auzo Etxe

elkartearen ganbarara bildutako guztien atseginerako. Azken urteetan egindako txapelketa eta desfioei, denen partaidetza izango duen saioak hartuko die lekua: bailarako bertsolari nagusiak, gazteak, eta Patxi Goikolearen lanetik sortu diren kimu berriak ere izango dira, Nikolas Seguroiak jarritako gaiak beteaz arituko direnak. Euskal Telebistako Hitzetik Hortzera saioak ere etorriko dira grabazioa egitera.

## Jaiak

### • Altamirako jaiak

Egun bakar bat, larunbata, baina ekintzaz beterikoa izango dute Altamirako auzotarrek euren jaia ospatzeko. Jaiei goizeko 10.30etan emango zaie hasiera, suziriak bota eta dultzaineroen kalejiraren bidez. Kalejira amaierarako haurrentzako jolasak prestatu dituzte, eta txikiteo ordurako auzoko taberna irekiko. Arratsaldean berriaz, 5ak aldera, marrazki txapelketa egingo da, sariak banatzearekin batera haur guztientzat aurrez prestatutako txokolatea aterako zaielarik. Txikitxo dantzari taldearen ekitaldia arratsaldeko 7ak alderako iragartzen da, San Frantzisko parrokiaren meza hasiko den ordurako hain zuzen. Meza bukatu eta gero, sorginak eta erraldotxoak dultzaineroekin kalejira berri bat burutuko dute, jaiei bukaera emateko gaueko 10.30etatik aurrera Eguzki taldearekin dantzaldia izango delarik.

## Paper bilketa

### • Orkatz.

Askotan bezala, goizeko 10etatik aurrera Orkatz skaut taldekoek paper bilketa egingo dute.



Lehenik, mugaturik egin zuten komunikabideetarako deia. batere harritzen ez gaituen kontua da, eurentzat pekatu mortala baino astunagoa bait da *Egineko gorri* eta animagabeei dei egitea. Baina tira, nahi dutenak gonbidatzeko eskubide oso-oso dute, baina gero ez dezatela besteen politika baztertzaileaz hitz egin.

Edozein modutan ere, nekez justifikatu eta defenditzekoa iruditzen zaigu Arrasate Press eta ATBkoak joan eta muturretan ematea. Guzti hori datorren kanpainen euren bandera izango den politika integraztaile eta ez-baztertzailearen izenean.

Guzti horrekin, gero eta zalantza gutxiago dugu zer gizarte mota ezarriko lukeen PSOEek ahal izanez gero.”

(Arbigarak “Egin” egunkarian)

Aitzindarien artean aintzindariena, dudarik gabe, Almen ikastola. Bertako Marian Zubizarretak zera diosku: ‘Almen ikastolan ilusio handiz hasi ziren duela hamar urte bertsoaritzaz lantzen. Lan horren fruitu izan dira gaur ezagutzen diren zenbait bertsoari gazte: Jon eta Aitor Sarasua, Arantzazu Loidi, Iñaki Isazelaia, etab. Ikastola barruan interes berezia agertzen zuten ikasleei klase bereziak ematen zizkien Patxi Goikoleak ikastolatik kanpo. Une honetan bertsoaritzari indar berri bat ematekotan gabilta”

(“Ikastola” aldizkarian)


### Zertan da bertsoaritzaz Deba Garaian?

Duela urte batzuk, orain baino “figura” gutxiago zegoen, baina talde gehiago ari ziren bertsoaritzaren munduan. Gaur gaztetxoek Bertso-eskolak, Eskola Artereko Bertsolari Txapelketa daukate helburu eta horri begira, Deba Garaian hamarkote bat daukagu kantatzen ondo dakitena eta bertsoa ezagutzen dutenak. Etorkizun handikoak dira, baina luzaroan lagundu egin behar zaie. Bestalde, irakasle gutxi ditugu gaztetxoei eskolak emateko, eta ematen direnak ordu desegokitan gainera. Ikastoletako irakasleek, behar bada ezin dutelako, ez diote bertsoaritzaren gaiari behar beste heldu.

Hogei hamar urtetik azpikoetan, dozena-erdiko lagun taldea gara eta udazkenean egingo den Gipuzkoako Txapelketara begira gaude. Dena den, txapelketetan parte hartzeko nahiko jarrera ezkorrean gaudelakoan nago. Helduetan berriz, hamar lagun inguru badira, eta hauek bihar, hilak 20, Apotzagan izango den erako jaialditara mugaturik daude.

Hiru taldeok saio faltan aurkitzen gara eta Apotzagan burutuko den jaialdia bezelakoek, bi lan betetzen dituzte: alde batetik saioak ematea, eta beste aldetik maila bakoitzeko bertsoarien berri ematea. Aurten, iazko hutsuneari aurre egiteko, hamasei partaideetako jaialdi alai antolatuta daukagu. Betiko bertsozaleaz gain, berriek ere izango dute zer ikusia Apotzagako auzo etxean.

Jon Iñaki Izarzelai,  
bertsolaria.



**Construcciones ARRASATE S. L.**

Udalpe 5, Etxabehea. Erguin auzoa. Tfnoa: 79 04 46  
ARRASATE




Maiatzaren 26a bitartean gelditzen diren sei asteetan Mondragoeko alkategaiak azaiduko ditugu orriaide honetan, beste komunikabideetan bezala, azken udal hauteskundeetan botu gubxien lotu zuenetik hasita.

♦ Joan den ostiralean tupst egin zuten Monterronen **Mari Karmen Garmendiak** eta **Martin Auzmendik**. Mari Karmen Altunaren erakusketa ikustera etorria zen. Ataundarra, berriz, Lourdes Oruna mondragoetarrekin zetorren, EEko zerrendaren aurkezpena. Ondo konpontzen bide dira goierriar biak.

♦ **Jose Antonio Altuna «Txatillo»** boskarren agertzen da EAren zerrendan. 76tik 79ra Mondragoeko Alkate izan zen eta *Bergarako Alkateak* taldeko partaidea.

♦ Mondragoeko PSOEkin **inkesta** bat egin omen du mondragoetarren botu-asmoei buruz eta hauetxek omen dira emaitzak: HBk 6 zinegotzi, EAJk 5-6, PSOEk ere 5-6, EAK 3 eta EEk 1. Jeltzaleak sozialisten gaitetik agertzen omen dira.

*hona hemen...*



LEIRE ZUBIKARAI '91

*Arrate Landa*

**Arrate Landa**

Arrate Landak 33 urte ditu, ezkongabea da eta alaba baten ama. Politika munduan gazte-gaztetatik dabil, orduan zegoen giroak eraginda edo, "gauzak gaizki ikusi eta zerbait egin beharra ikusiz". Ogibidez irakaslea da, baina kazetaritza gustatzen zaio, eta noizbait ikasiko duela uste du. Osterantzean, irakurtzea eta igerian egitea atsegin ditu eta oso kirolzalea ez bada ere, bizikletan ibiltzen da. Haurdun geratzean utzi zion erretzeari.

Faltsua izatea eta izkutuko kartekin jokatzeko gorrotatzen du gehien pertsonengan, eta egizalea eta kontsekuentea izatea gehien estimatzen. Zerbaitetan sartzen denean jarraitzen duen horietakoa da, eta hankak lurtean izan arren, idealistatza du bere burua. Gizartea hankaz gora jarriko luke, dena aldatuko. Pesimista, jenio bizikoa, erraz haserretzen da. Orain *Las edades de Lulú* ari da irakurtzen.

Arrasatearrei zerbait esatekotan, gehiago mugi daitezela eskatuko lieke. Arrasate bi hitzetan? "Gustatzen zaidan herria, baina amargatzen nauena".

**BERRIRO ERE...**

**Kanping, hondartza, terraza eta kirol gaien aukera handiena aurkituko duzue salmenta onean**



**Cercas bajas 34, GASTEIZ**



**H A U R T X O A**

Arrasate Pasealekua 4,  
Tfnoa: 79 14 90 ARRASATE

**FELIPE  
MADINA  
ZURAK**

Zarugalde 40, Arrasate 79 13 78



**Gelma**

Gelmako CC.OO. eta ESK-CUI-Seko ordezkari sindikalek honako ohar hau bidali digute: "Denboraldi baterako kontrataturiko langile biren kanporatzea salatu nahi dugu, lanposturik eze-gonkorrena posible egiten duten aldi baterako kontrataziora joaz harturiko langileak hain zuzen ere.

Lehen lanpostua duten langileekin egiten dela eta, are larriago ikusten dugu, lan baldintzarik txarrenak ezartzen zaizkie eta: 5 errelebu eta abar. Gertatua salatzea da, gainera, langile horiei nekez lor daitekeen produktibitatea eskatzen zaie eta, bitarteko agintariak beti gainean izatearen puruz".

**Anbulategia**

Arrasateko ambulategiko zuzendaritzak jakitera eman duenez, medikuntza orokorreko kontsultek aldaketak izango dituzte apirilaren 15etik aurrera, ordutegia eta kokapen fisikoari dagokionez. Informazio gehiagotarako ambulategiko harrerara jotzea eta endredoak barkatzea eskatzen du zuzendaritzak.

**Lan Kide aurrezkia**

1991ko lehen hiru hilabeteetan, zerga aurretiko 2.164 milioko irabaziak izan ditu, iaz epe berean lortutakoa baino %14 gehiago. Hartzekodunen arloan daukan bolumena 312.080 milioi pezetakoa izan da orain. Otsailaren 25etik apirilaren 6ra bitartean 20.090 *superlibreta* ireki dira.

**Epaiketa**

Ostegunean Rafa Etxabe arrasatearra, M. Osa bergararra eta J.M. Lete atxabaltarra epaitu zituzten *Aitzorrotz* komandoko kide izatearen salaketapean. Fiskalak 26 urte eskatzen ditu bakoitzarentzako.

# Txandaka

## AUTOBIA INONDIK ERE EZ

**H**itz asko entzun ditugu egun hauetan Irurtzun-Andoain autobia defendatzaileengandik. Beraiek izan dira gu bazterreratu gaituztenak, ez dituzte kontuan hartu gure arrazonamenduak. Edozein autobide baino nahiago dugu dagoen Araxeseko bidea hobetzea, eta hau erakundeek ez dute inoiz kontuan hartu!

Ez gaude autobidearen alde, sistimak bultzatzen duen bizimodu garale eta kontsumitzailean onartzen ez dugulako, eta garraioak errepide azkarra eskatzen duelako, nahiz eta ingurune ekologikoa erabat hondatu.

Ideologi garaileak garraioa eta bizi maila parekatzen ditu: autopistak, kotxeak, petroliontzia... oihanen hondamenekin, maria beltzak, istripu eta kutsadurarekin oso lotuta daude. Garraioak bizimailaren jeistea beste ez dakar.

Garraioa ekosistemen asimilazio gaitasuna gaintzen ari da. Indrustri eremuetan bizi den jendeak, munduko biztanlearen %20ak, kutsatzen du gehien. Munduan 500 milioi motordun ibilgailu daude, autoa eta abioia ekologia gehien hondatzen dutenak izanik.

Autoz mugitzeko, bidea zenbat eta zabalago hobeto. Hiri handietan etxea beste gune guzietarik urruti baduzu, kotxea erabiltzera kondenaturik zaude. Gero eta leku gutxiago dago oinezko edo bizikletakoendako; eta gero eta gehiago kotxe-koendako. Sozietate honek auto txikia erabiltzera bultzatzen gaitu, garraio-sare publikoak baztertuz.



Piter Encinas (\*)

Bestalde, kotxeak gero eta bizkorragoak direnez, hor gehitzen zaigu istripu kopurua. Mugikortasuna, bizimaila eta boterearekin parekatzen da, zenbat eta urrunago joan hobeto. Noiz emango diegu bertako parajeei duten balioa?

Desiragarria litzateke garraio publikoa kotxe txikiaren ordezkari erabiltzea; onuragarria litzateke gizarte-eraketa ximpleagoa eta

autonomo baterantz jotzea, bai herri zein nazio mailan. Garraio-mota erabiltzerakoan, kontutan hartu beharko liriteke honako kontzeptuok: birziklatze-gaitasuna, konponketa erraztasuna, kutsakortasuna, espazio erabilera... abiada, dotoretasuna eta estatus kontzeptuen ordezkari.

Hauk dira gaur egungo garapen-mota kinkan jartzeko ditugun arrazoi batzuk, beraz hemendik hasita, 180 gradu aldaketa proposatzen dugu: lehenbizi gure buruetan, gero gure ohi-turetan. Eta honegatik Autobia inondik ere ez, ez Leitzarandik, ez Urtoitik, eta ez Araxesetik! aldarrikatzen dugu behin eta berriro.

Autobiaren aurka gaudenok ederto ikusi genuen joan den larunbatean, nolako jendetzak ez zuen onartzen "Instituzio demokratikoei" inposatu nahi dituzten buelta gabeko bidea. Zenbat milakako geunden Ondarretan?

Kasu honetan, zenbakiak ere arrazoiak eman digute: Herriak ez du Autobiarik nahi.

(\*) EKiko partaidea

# KiDE

## Paperdenda eta jostailudenda


Erguin 5, Tfnoa: 79 25 77 ARRASATE

# LILURA

zeure moda  
diseinatu eta sortzen  
laguntzen dizu

Zerkaosteta 5, behea.  
Tfnoa: 79 89 72 ARRASATE





Ihardunaldiok in gai hauei buruzko gogoeta sortu nahi da

## Ingurugiro Ihardunaldiak

*Apirilaren 18tik maiatzaren 16ra arte, ostegunetan*

Deba Garaiko Udal Elkarteak Ingurugiroari buruzko Ihardunaldiak antolatu ditu apirila eta maiatzetako. Aurkezpenean Mankomunitateko Lehendakariak, Xabier Zubizarretak adierazi zuenez, lehendik ikusten zen zaborraren tratamendu integralaren beharra, inguru honen garapen desordenatuak eta bapateko industrializazioak eragin handia izan dutelako. Gai ekologikoei erantzutea beharrezkoa dela ikusita, hiru sailetan ekin diote lanari: erreken garbiketa (isurkin likidoak), erraustegia (zabor urbanoen tratamendua) eta zabor industrialak (ke, hauts eta antzekoak). Ingurugiro sailaren eraginak arlo honetan zaborra nola tratatu eztabaidatzea eta zaborraren sorrera razionalizatzea izan behar duenez, helburu horrekin eratu dira ihardunaldiak.

Apirilaren 18an hasi eta maiatzaren 16ra bitartean, bost astetan zehar izango dira hitzaldi-solasaldi erara antola-

tutako ekintzok, ostegunetz arratsaldeko 7etan eta Eskola Politeknikoko areto nagusian. Egunez egun, honako gaiok ukituko dira: *Hondakin solidoen tratamendua, hondakin toxiko eta arriskuetsuak, Deba Garaiko egoera eta hartutako konponbideak, H. solidoen ikuspegi orokorra eta Europako Elkartearen barrutia eta Deba Arroako saneamendu integrala.* Jardunaldion amaieran ondorioak ateratzeko beste saio bat ere egin ahal izango da.

Asmo nagusia egungo egoeraren erreposoa egitea denez, enpresari, Udal, irakasle talde eta naturarekin erlazionatutako erakundeei zuzendurik daude bereziki, edozeinentzat zabalik izango den arren. Hizlariak erakunde ezberdinetan ekologiarri buruzko lanetan diharduten espezialistak izango dira, industri injeneru, biologo, kimiko, abokatu eta Green Peaceko ordazkariak besteak beste.

## Usteak uste

**H**an eta hemen eratzten diren ekintzen artean, badira egun hauetan atentzioa ematen duten bi: ingurugiroaz Deba Garaiko Udal Elkarteak antolatu duen hitzaldi sorta eta gaurtik aurrera Biteriko aparkalekuan dagoen Letrakit erakusketa.

Lehenengoak, hain baztertu eta hondatuta dugun ingurugiroari behar duen tratamendu egokia ematen hasteko lagunduko digu. Edozein neurri hartu aurretik ezinbestekoa izaten da gaiari buruzko informazioa eta eztabaida zabalitzea. Alde horretatik, Mankomunitatearen egitasmoak txaloa merezi du.

Eusko Jaurlaritzak eta Euskaltzaindiak antolatu duten Letrakit erakusketa ibiltariari dagokionez, aukera polita eskainiko digu adin guztietako mondrogoetarroi euskal literaturaz eta alfabetatzea zabalteko azken urteotan egin diren ahaleginen berri zuzenagoa izan dezagun.

Mondragoeko herriari dagokion zatia AEDri eskainia da, baina hau, oso erizpide zuzenez, erakusketa beregan bakarrik zentratu barik, arrasatearrak euskalduntzeko eta alfabetatzeko azken urteotan egin diren lanen berri erakusten saiatu da. aldi berean lan horretan makina bat izerdi eta neke isuri dituzten euskaltzale eta erakundeen berri emanez.

Merezi izango du bi ekintza hauek, hitzaldiak eta erakusketa, gertutik jarraitzeak. Sorpresa bat baino gehiago izan dezakegu.

*Joxe Aranzabal*

**LEZARAN**

**ENMARKAZIOAK • LAMINAK • MARGOAK**

**Biteri Etorbidea 11, ARRASATE**



**SAMEGO  
GARBIKETAK**

Urriburu 24,  
Tfnua: 79 70 39  
**ARRASATE**





Kooperatiba taldean makina bat bilera nagusi iragartzen dira

## Bilera Nagusiak Kooperatibetan

*Ekainean edo uztailean soldaten aldeak eztabaidatuko*

Bilera Nagusiak egiteko sasoia da kooperatibetan. Apirilaren 19an Fagor taldeko Arrasate, Sistemak eta Leunkorren Bilera Nagusiak izango dira. 20an, Fagor Industrial eta Coprecin 25ean Fagor Elektrotresnak-en. 26an Radar, Fagor Automotion, Elektroteknika eta Altzariak-en. 27an Ederlanen eta amaizteko, 29an Fagor Talde osoan.

Bilera hauetan memoriak eta gestioak aztertuko dira, batzorde zuzentzaile berriak aukeratuko eta hiru kooperatibaren bategitea erabakiko: Fagor Elektroteknika, Altzariak eta

Radarrena hain zuzen.

Ekaina edo uztaileko, bestalde, Fagor taldeko Bilera Nagusi Berezia deituko da, 1etik 3ra tartean dagoen soldaten muga zabaltzeko komenigarritasunaz hitz egiteko asmoarekin. Kontseilu Orokorrek tarte hori zabaltzea onartu zuten, azken aldian izan den profesionalen ihesa geldituz, baina 2.000 inguru kooperatibistak, *Kooperatiba Taldea* elkarteak aurrera eramandako firma bilketa aprobetxatuz, gai hori Bilera Nagusian tratatzea eskatu dute.

### HBA-DAR atzeratu

Garagartzan egin den Hondakin biltegi aldatiboaren irekitzea atzeratu egin da berriz ere. Badirudi oraindik ez direla obrak bukatu eta bien bitartean zaintzailea kontratatzeko bideetan ari direla.

### Fagor

Fagor kooperatibak kontratu garantzitsua sinatu du General Motors enpresa amerikarrarekin, autoak egiten dituen etxe horrentzako motore blokeak egiteko. Lau zilindrotako motorentzako blokeok Ederlan kooperatibetan eta Luzuriagan egingo dira.

### Euria

Aste guztiko egunik euritsuena astelehena izan da, Ikerlaneko neurketa zentruan, 27 litro bota zituen. Asteazkean oster, 0,1.


#### JAIOTZAK

Casal Kortabarria, *Amets*. Apirilaren 3an. Markaide Fdez. de Retana, *Ainhoa*. 7an. Gabilondo Fernandez, *Iker*. 8an. Irueta Badiola, *Miren*. 9an. Arregi Uzuriaga, *Argoitz*. 9an. Monjelo Zubiaurre, *Laura*. 10ean. Fuentes Mateos, *Seila*. 10ean. Garai Alberdi, *Mikel*. 11an. Dominguez Cid, *Tanaia*. 12an. Eraña Velasco, *Josu*. 12an. Galeano Bermejo, *Iban*. 12an.


#### ESKONTZAK

*Francisco Aguilar Casas & Elena Herrera Perez*. Apirilaren 13an. Zibilez

## SEGURTASUN-INJINERUTZA



Zure denda, lantegia, etxea, etab. **BABESTEN** ditugu **LAPURKETA** eta **SUTEEN** aurka  
Legutianoko atea 35, Tfnoak: 26 34 77 eta 26 33 44 GASTEIZ



Kontzesifio 2,  
Tfnoa: 79 14 06  
ARRASATE

**beatriz**  
oinetakoak eta  
poltsak

Erdiko kale 11, Tfnoa: 79 14 33  
ARRASATE





Zerrendak kaleratzean hasiko dira eraikuntza lanak

## Gorostizako erizpideak erabaki

### Hautagaiak lau taldetan banatuko dira

Gorostizako 110 etxebizitzak nola eman erabakitzeko jarraituko diren erizpideak finkatuta daude dagoeneko. Hautagaiak lau taldetan banatuko dira: lehen taldean hiru seme-alabatik gorako familiak sartuko dira, eta Udalaren asmoa horiei besterik gabe etxea izendatzea da. Bigarrenik, seme-alaba bira arteko familiek osatuko lukete, hirugarrena elkarrekin bizi direla egaiztatzen duten bikote ezkondu nahiz ezkongabeek osatzen dute. Azkenik, ezkongabeak daude.

Aipatutako talde bakoitzari pixu ja-

kin bat izendatuko zaio, eta eskaera kopuruaren arabera gero zozketa egingo da, aurretik talde bakoitzarentzako etxebizitza kopurua finkatuaz. Hamabost egun buruan emango da jakitera talde bakoitzari zenbat etxe emango zaizkion eta zozketaren eguna. Hasiera batean banaketa sistemak korapilatsua dirudien arren, Udaleko ordezkarien esanetan era honek guztiz betetzen ditu Udalak zituen asmoak, eta etxe horiek eraikitze prozesu guztiaz arduratuko den enpresak, Proginsak hartuko du aurrerantzean ardura.

## Letrakit

Bat baino gehiago harrituko zen Garibai plazan ipini dituzten trabola antzeko horiek ikusita. Letrakit da, euskal kultura eta euskal idazleei buruzko erakusketa. Erakusketaren barruan leku berezia izango du AEDk. Ehun metro karratuak lau atal nagusitan banatuko dira: lehenik lehengo eta oraingo euskal idazleak, ondoren Arrasateko alfabetatze eta euskalduntzearen historia: AEK, Udal Euskaltegia, Frantziskotarrak, kooperatibetako euskara taldeak eta Ahizke. *Danok* kultur elkartea izan zenaren iharduna ere gorai patuko da, eta azkenik, AEDren beraren sail ezberdinen aurkezpena. Argazkiak, komentarioak, argitaratutako materiala eta bideoak erabiliko dira horretarako.

Ostiralean ireki eta datorren astea bitartean. Zoaz ikustera!



## X. Gorosarri eta M.L. Trojaola doktoreak

### Mediku espezialistak erreumatologian

Titulu nazional frantsesa (Lyon-eko Unibertsitatekoa)

HEZUR, MUSKULU, ZURDA ETA GILTZADURETAKO  
GAIXOTASUNAK.

**Ornoterapia:** manipulazioa, trakzioak...

**Akupuntura:** erreumatologiari aplikatua.

**Osteoporosia:** diagnostikoa, prebentzioa.  
tratamendua.

Lagun Aro / Iquimesa / Diputaziokoa / Igualarorio mediko-kirurgikoa eta  
Partikularrak

Zaldibar 1, 1. Tfnoa: 77 00 40 ARRASATE

## LOREA

Oinetakoak  
eta poltsak

Paz 9, Tfnoa: 25 66 32  
GASTEIZ

## ARAMAIO okindegia

Maisu Gurldi 3,  
Tfnoa: 79 36 46



• Zotz-Motzek lau sari banatuko ditu astero, orri honetan agertuko diren galderei ondo erantzuten dietenen artean. Moztu, bada, txartelak eta erantzunak Arrasate Pressera bidali.

• Uztailaren 16an, Zotz-Motzen sari handiak zozkatuko dira: Renault Clio bat eta bi pertsonarentzako bidaia Kanariar Iletara.

Zozketa handi honetan parte hartzeko txartelak Zotz-Motzen babesleek banatuko dituzte euren bezeroen artean, erosketekin batera.



• ANSCO argazki makina bat.

## IRABAZLEAK

Argazki makina:

**M. KARMEN  
OSINALDE**

Telefonia:


**IDOIA OREGI**

Erlojua:

**JASONE  
ELKOROBARRUTIA**

Afaria:

**NIKOLAS  
IRIARTE**



• HANDY telefono bat.



• CASIO erloju bat.

# Zotz




Iturriotz kalea 8, Tfnoa: 77 04 01  
ARRASATE

*Erikite*

SOINUA • BIDEOA • TB • KOMUNIKAZIOA

Otalora 25, Tfnoa: 77 13 20  
ARRASATE



Maalako Errabala 5, Tfnoa: 79 19 25  
ARRASATE



# Motz

## LEHIAKETA

**GALDERA**

Zein animalia agertzen da Arrasateko harmarrian?

Izena:

Abizena:

Telefonoa:

• Bidali erantzuna eta zure datuak Arrasate Pressera: Azoka Kalea 1.



• 2 lagunentzako AFARIA.



• KANARIAR IRLETARA  
2 lagunentzako bidaia  
astebeterako.



• Renault CLIO auto bat.  
(F.F)



**KATAIDE**  
SAIETESA

Kataide poligonoa, Tfnoa: 79 60 10  
ARRASATE



**BASKOTOUR**  
BIDAIK

Maixu Arano 2, Tfnoa: 79 32 22  
ARRASATE



**MECA**  
tailerrak

Araba Etorb. z/g, Tfnoa: 79 50 12 / 79 52 12  
ARRASATE





Zotz-Motz lehiaketako lehen irabazleak **Unai Bergaretxe, Errose Manchado, Jose Luis Olabe**, eta **Arantza Beitia** izan ziren. Sariak jasotzera joan zirenean lkatzen makinaz aldatzen ari ziren. Barruan tokirik ez zegoenez, argazkia kanpoan atera beharra izan genuen, eguraldi txarraz gainera.

Argazkiko neskatilak San Frantziskoko usoekik jolas egitea erabaki zuen. Batek jaten eman eta besteak, pilan zeudela aprobetxatuz, zapaltzeari ekin zion. Intentzioak intentzio, hezaltiak azkarragoak izan...



◀ Neska-mutilak pozik etortzen dira gurera, edo hala dirudi. Aretxabaletako Kurtzebarri eskolakoek bigarren taldea bidali dute dagoeneko. Komunikabideen zeregina eta teknikak lantzen ari dira, eta galdera ugari ekarri zuten. Eskerrik asko.

# LASAGABASTER

## JANTZIDENDA

*Bertan izango duzu beti modako gauzarik onenen aukera zabalena*

Zerkaosteta kalea 1 eta 2, Tfnoak: 79 27 27 / 79 13 55 ARRASATE





**Izen**  
**PROPIOAK**

● **Arantxa Axpe**, 21, arrasatearra izango da aurreantzean Lan Kide aurrezkiaren Otalora jauregiko idazkari, telefonista eta harterako arduraduna. Arantxak Zuzendaritzarako idazkari ikasketak egin zituen Deustuan, eta orain arte Arrasateko Udaletxean ibili da lanean.

● **Pedro Uraln**, 51, txirrindularien taldeko zuzendari titulua eskuratu berri du, Donostiako Txirrindulari Federazioan, 48 orduko ikastaroa egin eta azterketak gainditu ondoren. Kepak Fagor Arrasaten egiten du lan eta azken urteotan Udaleko zinegotzia da EAJ-tik.

Begietarako zoragarri gutxi erakusten zuten Ferrerias kaleak astelehen goizean, atarien aurrean zabor poltsa ugari biltzen zirelarik. Dirudienez, asteburuetan autoren batzuk aparkatzen dituzte kaleko sarreran, zaborra biltzen duen kamioiari sartzea eragotziz. Ferreriasen bizi direnak ez zeuden batere gustora... "berriro gertatzen bada, zaborra hartu eta herriko plazara eramango dugu" zioten. Ea bada, horrelakorik egin beharrik ez dagoen.




Epeke

◀ **Eusebio Errasti** eta

**Arantza Ortiz de Guzman** joan den urteko abenduaren 3an ezkondu ziren, eta ezkon-bidaian Mexikoko lurak bisitatu zituzten. Zorionak!

● **Bernabe Berezibar** eta **Alta Garalalde** euskaltzale arrasatearrak izango dira Letrakit erakusketaren barruan Arrasateri eskainiko zaion zatian protagonista. Bi euskaltzale hauek aintzindari izan ziren alfabetatze prozesuan.



**ERRASTI KRISTALDEGIA**


**Plastiko eta burdinazko hodiak  
beirina eta kristalak  
akzesorioak**

Olarte kalea 47, behea Tfnoak: 79 22 55 79 14 25


**ITSASKI**

**arrandegia  
arrain freskoa  
eta jaki izoztuak**

Urbe Auzoa  
Arrasate. 79 98 94



**BONBOIAK**



**FRUITU LEHORRAK**  
Otalora 2, ARRASATE



# Trikitolari Eskola entseiatzeko toki egoki barik

**Ferial Ikastetxeko hirugarren solairuko gela batean, irakaslea begira duelarik, ikasle berriak gogoz heltzen dio soinuari. Kanta menderatu arte behin eta berriz errepikatu beharko du.**


**T**rikitolari Eskolan, 1989-90 ikasturtean 27 ikaslek eman zuten izena, ondorengoan 36k, eta orain bertan dabiltzanak 80 pertsona dira. Datorren ikasturterako ehun ikasle baino gehiago izatea espero da: Trikitilari Eskola goraka doa.

**R**afael Garai 41 urte, Ritxar Cuevas 19, Unai Iturriotze 14, Liher Larrea 18, Leire Garmendiak 16, Eugenio Iturriotz 39... lau-rogel lagun arteraino luzatu zitekeen zerrenda, gazte eta ez hain gazte trikitixa eta panderoa ikasiz osatzen duten zerrenda. Hasieran, SUDCen baitan, helburu bakar batek, bilarazten zuen astero-astero hain jende desberdina: Arrasateko kale giroa alaitu eta euskal kultura zabaltzeko hiru edo lau trikitilari bikote osatzeak.

## Lehen urratsak

**H**asierako egun haiek, hasmoak antzerakoak izanda ere, atzean gelditu dira, eta igarotako denboran

Trikitolari Eskolatik sortutako lehen trikitilari bikoteak kalejiran ibili izan dira jadanik, arrasatearren gustorako. "Santamasetan egin genuen lehen agerraldia



Ordu asko sartu behar dira soinua ondo jotzen ikasteko

jendearen aurrean, bertso-lariekin eta Goikobalu abesbatzakoekin kalejira eginez. Normala denez, errepertorioa motza geneukan, trikitiaren ikasketak, beste tresnek bezala, ordu asko eskatzen dituelako. Lehen agerraldi horren ondorioz, ikasle kopuruan handitze nabarmena antzeman genuen, eta gainera beste konpromezu batzuk hartu: Santa Agedako abesbatzak, Almeneko 25. urteurrenaren ospakizun ekitaldiak, Erguin eskola publikoko 10. urteurrenaren ospakizun ekitaldiak, eta Goikobalurekin batera Galeserako bidaia".

Herriko hainbat komunikabideetan Goikobalu abesbatzak Galesera egingdako bidaiaren arrakastari buruz, gauza ugari irakurtzeko aukera izan da. Bidaia horretan Goikobaluko kantariez gain, trikitilariak ere izan ziren, euren eritzia ondorengo esaldiak laburtu dezakeelarik. "Goikobaluk arrakasta? trikitilariak bai arrakasta!".

## Toki egokiaren beharra

**B**idaiak eta kalejiretara aterata aurretik, trikitixa ikasleek makina bat ordu sartu behar izan dituzte irakasleen aginduak betetzen. "Astean ordu bat sartzen dugu irakaslearekin, baina gero bakoitzak bere kontura askoz ere gehiago sartzen ditu, ahal duen tokian. Behar bada, astean klase-ordu bat ematea gutxi izango da, baina tokirik ezean besterik ezin dugu egin. Kontuan hartu behar da lau-rogel lagun gaudela Trikitilari Eskolan, eta klaseetarako Ferial Ikastetxeko bi gela besterik ez ditugula. Alde horretatik, gure



arazorik larriena toki-eza da. Klasera goazen bakoitzean trasteak bizkarrean hartu eta etxetik bueltan ibili beharra dugu, gauzak lagatzeko toki bat ere ez daukagu eta”.

Arrasateko beste hainbat erakunderi gertatzen zaion moduan, Trikitilari Eskolako egoera ekonomikoa ez da bat ere ona, dauzkan diru-sarrera bakarrak ikasleen kuotak eta Udalaren laguntza direlako. Pentsa daitekeenez, ikasle zein irakasleentzat hain egoera eskasari aritzea arazo handia da, ondorioz datorren ikasturterako Arrasateko Trikitilari eskolakoan ahalegin guztiak euren beharretara egokituko den tokiren bat lortzera bideratuko dira.

### Gogoia nondik?

**A**razoak-arazo, Trikitilari Eskola goraka doan lekuko fidagarriena bi urtetan ikusi den matrikulazioaren gorakada izan da. Kontuan hartzen bada azken urteetan Arrasaten ez dela bertakoen trikitixa soinuak entzun, arraroa edo zail samarra dirudi bapatean Trikitilari Eskola sortzea, hau da, Trikitilari Eskola osatzeko behar den beste jende biltzea. Nondik sortu ote da horretarako zaletasuna?

“Beno, -zioen ikasle baktek- ni hemen egoteko arazoia trikitixa gustokoa izatea da, betidanik gustatu izan zait. Ez etxean eta ez



Ordu asko sartu behar trikitixa ikasten

*Arrasaten, ez dut sekula trikitirako aparteko girorik ezagutu, eta behar bada horrek ere bultzatu nau trikitixa ikastera”.*

Trikitilari Eskolakoek ematen dituzten erantzunak antzerakoak dira. Pandero eta trikitiari eutsi eta kalean aritzeko arrazoiak alde batera utzita, Eskolak Arrasate eta bailarako folkloreko hut-sunea betetzen du. “Orain artean, trikitixa ikasi nahi zuenak zuzenean soinujolearen batengana jo beharra zuen. Hemendik aurrera, pandero nahiz trikitixa ikasi nahi duenak, Arrasateko Trikitilari Eskolarekin harremanetan jartzea besterik ez du izango. Hori bai, aurrez kokalekuren bat aurkitu beharko dugu”.

## Solfeoa beharrezko

**B**este hainbat ikastetxek egiten duten bezala, Trikitilari Eskolak irakasteko sistema bat ezarri behar izan du. Hasieran, klaseak akordeoia ikasi nahi zutenentzat prestatu ziren. Denborak aurrera egin ahala, ikasleek horrela eskaturik, panderoa eta koplen irakaskuntzari ere ekin zitzaion.

Lehenbizi zer irakatsi erabaki zen era berean, bigarren etapa batean nola irakatsi erabaki zuten. Hasieran zenbaki bidez irakusten ibili baziren ere, gaur egun Trikitilari Eskolan soinua ikasi nahi duen edonori ezinbestekoa zaio solfeoa jakitea, solfeo bidez irakasten bait da.

Zergatik aldaketa hori? “Hasi ginenean -dio irakasle batek- bi sistema erabiltzen genituen. Solfeoren bidez irakastea arrazoi batnegatik erabaki genuen: behin ikasi eta gero, gauza gehiago egin daitekeelako. Dena dela, solfeorik ez dakitenak ere etor daitezke, panderoa ikasteko ez da beharrezkoa, eta soinuarekin bezain ondo pasatzen da”.

**AUTO  
ESKOLA**


**ARRASATE**

**7etatik 8etara klase teorikoak**

Olarte kalea 30, Tfnoa: 79 89 89 ARRASATE



# GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA ZURE ZERBITZURAKO



Gipuzkoako Foru Aldundia





# Finalaren eguna: larunbata



**Finalerdien ondorioz, Kajoi Taberna eta Adelaida taldeek jokatuko dute Zaldibarko Txapelketako azken partidua.**

**A**delaida eta Bar Kajoi taldeak abantaila txiki batekin atera ziren joan den larunbateko partiduetara, aurretik lortutako abantailaz alegia. Abantaila aprobeztatzeaz gain, areagotu ere egin zuten, eta ondorioz Zaldibarko txapelketa eurek erabakiko dute.



## ARRASATE KIROLAK

Kontzeziño 8, Tfnoa: 79 46 12



**ILLARRAMENDI**

**Geure lantegiak ditugu**

Iturriotz 7 bis, Tfnoa: 77 12 71 ARRASATE

# JMA

# JMA





**Murubarren.** Ezkerretik-eskumara. Zutik: Jabier Iturbe, Varilla, eta Jose Mari Iturbe. Makurtuta: Oskar Ariztimuño eta Roman Iturbe.



**Pepelus.** Ezkerretik-eskumara. Zutik: Iñaki Mendarozketa, Luis Urrutia, Jose Mari Vallina, Jesus Luengo, eta Toño. Makurtuta: Aitor Astaburuaga, Leandro, Jose Vitoria, eta Jon Etxebarria.



**Toki-Eder.** Ezkerretik-eskumara. Zutik: Rufino Gil, Gabriel Vigara, Angel Espinosa, eta Eladio Gonzalez. Makurtuta: Iban, eta Jesus Herrero.




**Los Motz.** Ezkerretik-eskumara. Zutik: Joseba Okina, Iraultza Iturbe, Josu Belar, eta Jabier Casado. Makurtuta: Gorka Galdos, Asier Bengoa, eta Eugenio Delgado.

a.eme...interiores


GARIBAI 9  
20 500 ARRASATE  
(GIPUZKOA)  
Tlfnoa: 943-791503  
Telefax: 791489





# 1991ko AURREKONTUAK

## ZIRRIBORROA



### 1991ko UDAL AURREKONTUAK

Udala .....	2.617.710.473	.... (iaz baino %23,5 gehiago)
AUKEA .....	135.724.000	.... (iaz baino %43,2 gehiago)
Iturbide Egoitza .....	132.186.000	.... (iaz baino %61,4 gehiago)
<b>Aurrekontu orokorra .....</b>	<b>2.741.020.473</b>	<b>.... (iaz baino %23 gehiago)</b>

### SARREREN AURREKONTUA

1.KAP. Zuzeneko zergak .....	318.150.000	.....%12,2
2.KAP. Zeharkako zergak .....	66.500.000	.....%2,5
3.KAP. Tasak, etabar .....	302.100.000	.....%11,5
4.KAP. Transferentzia arruntak .....	1.023.261.637	.....%39,1
5.KAP. Ondarezko sarrerak .....	20.000.000	.....%0,7
6.KAP. Inbertsio errealak Inorengatzea. ....	110.000.000	.....%4,2
7.KAP. Kapitalaren transferentzia .....	239.962.266	.....%9,2
8.KAP. Finantz aktiboen aldaketa .....	10.000.000	.....%0,4
9.KAP. Finantz pasiboen aldaketa .....	527.736.170	.....%20,2
<b>Guztira .....</b>	<b>2.617.710.473</b>	<b>.....%100</b>

### GASTUEN AURREKONTUA

1.KAP. Pertsonal-gastuak .....	512.086.566	.....%19,56
2.KAP. Zerbitzuak eta ondasunen erosketak .....	334.738.051	.....%12,79
3.KAP. Maileguen interesak .....	63.914.935	.....%2,44
4.KAP. Transferentzia arruntak .....	434.765.259	.....%16,61
6 KAP. Inbertsioak .....	1.174.398.425	.....%44,87
7 KAP. Kapitalaren trasferentzia .....	49.500.000	.....%1,89
8 KAP. Finantz aktiboen aldaketak .....	10.000.000	.....%0,38
9.KAP. Mailegu amortizazioa .....	38.307.237	.....%1,46
<b>Guztira .....</b>	<b>2.617.710.473</b>	<b>.....%100</b>



## GASTUEN AURREKONTUA SAILEZ-SAIL

### GOBERNU-ORGANOAK 29.031.481 (%1,11)

Errepresentazio gastuak eta Alkatearen soldata .....	24.611.481
Argitalpenak .....	2.000.000
Gastu bereziak .....	1.500.000
EUDEL .....	750.000
Dietak eta bidaiak .....	170.000

### KULTURA ETA KIROLAK 618.710.253 (%23,64)

Santa Barbarako urbanizazioa .....	100.000.000
Iturripe Kiroldegia .....	92.000.000
AUKEAren defizita .....	83.600.000
Amaia Antzokiaren birmoldaketa .....	80.000.000
Ferixalekuko Pilotalekua .....	75.000.000
Musakolako kiroldegian inbertsioak .....	52.000.000
Ospitale Zaharraren berriztapena .....	50.000.000
Pertsonal gastuak .....	26.612.253
Kultur Batzordearen subentzioak eta ekintzak .....	20.618.000
Herriko Jaiak .....	19.050.000
Monterron, Amaia eta Ludotekako iharduera .....	11.360.000
Arte ekintzak .....	3.270.000
Txikilandia .....	2.700.000
Auzoetako liburutegiak .....	1.700.000
Jose Letona beka .....	800.000

### HEZKUNTZA 172.906.864 (%6,61)

Ikastetxeen iharduera .....	55.378.051
Arrasate Musikal .....	32.000.000

Pertsonal-kostuak .....	28.302.813
Ume-Zaintzaren eraikuntzarako aportazioa .....	22.500.000
Inbertsioak .....	16.000.000
Batzordearen ekintzak .....	9.726.000
Injinerutza eskola Nagusiaren proiektua .....	5.000.000
Udalako I.E.- Magisteritza hitzarmena .....	4.000.000

### OSASUNA 176.287.479 (%6,73)

Iturbide Egoitzako defizita .....	61.000.000
Iturbide Egoitzako inbertsioak .....	38.328.423
Pobretasun-plana .....	23.500.000
Pertsonal-kostuak .....	18.768.843
Etkez etxeko laguntza .....	16.500.000
Drogomenpekotasun-Zerbitzua .....	10.017.713
Batzordearen ekintzak .....	5.820.000
K.I.U.B. ....	742.000
Mondragon Plana .....	600.000
Langabetuentzako laguntzak .....	560.000
Hirugarren adineko ekintzak .....	460.000

### HIRIGINTZA 603.792.002 (%23,07)

Kanposantu berria .....	115.000.000
Ondare patrimonialaren erosketa .....	100.000.000
Ur eta saneamendua .....	80.000.000
Zerbitzu-sari teknikoak .....	50.000.000
Kooperazio bidezko planeamendua .....	50.000.000
Roneo inguruko aparkalekua .....	40.000.000
Azoka plazaren berriztapena .....	35.000.000
Argiteria publikoa .....	20.000.000



## ETXEPARE - Bilintx LIBURUBENDA

*Liburuak eta diskoak*

Ibargarai 12, Tfnoa: 76 40 50 BERGARA



## GASTUEN AURREKONTUA SAILEZ-SAIL

Bideen asfaltatzea .....	20.000.000
Zeharkaleko etxebizitza .....	18.000.000
Ingurugiro-inbertsioak .....	15.000.000
Hiri-zaharreko PERla .....	15.000.000
Bide publikoetako urbanizazioak .....	12.000.000
Lorategirako inbertsioak .....	7.000.000
Birlandaketak .....	6.000.000
Udal ondarearen ekipamendua .....	6.000.000
Udalako bidea .....	5.700.000
Hiri-altzariak .....	3.000.000
Semaforoak .....	2.500.000
Eraikuntzen mantenimendua .....	1.900.000
Landare-mintegia .....	1.000.000
Autobus geltokia .....	1

### BARNE SAILA 407.266.010 (%15,56)

Arlo orokorretako pertsonala .....	318.991.010
( Idazkaritza, Hazienda, Udaltzaingoa eta Zerbitzu Teknikoak )	
Funtzionamendu-gastuak .....	35.925.000
Lanerako prestakuntza .....	26.350.000
Informatika eta bulegoko tresnak .....	15.000.000
Soldaren aurrekinak .....	10.000.000
Funtzionarioen euskalduntzea .....	1.000.000

### AUZOAK 65.469.000 (%2,5)

Mendi-nekazaritzako inbertsioak .....	20.000.000
Inbertsioak .....	19.170.000
Auzoen mantenimendu arrunta .....	10.599.000
Landa-bideak .....	10.000.000
Auzoetako jaiak .....	5.700.000

### ZERBITZUAK 298.165.000 (%11,39)

Kale garbiketa .....	76.000.000
Zerbitzu mankomunatuaren kuota .....	75.000.000
Parke eta lorategien mantenimendua .....	33.700.000
Mankomunitateko inbertsioak .....	22.000.000
Argiteria publikoa .....	20.100.000
Ur-zerbitzurako erosketak .....	15.000.000
Zerbitzu-eraikuntzen iharduera .....	13.010.000
Ur-isurketaren kanona .....	8.550.000

### EUSKARA 133.424.974 (%5,10)

Pertsonala .....	91.339.928
Euskara Batzordearen subentzioak .....	28.033.046
Euskaltegiaren iharduera .....	7.410.000
Euskera Batzordearen ekintzak .....	3.642.000
Bekak .....	1.800.000
Euskaltegiko ekipamendua .....	1.200.000

### GAZTERIA 10.435.238 (%0,4)

Batzordearen ekintzak .....	5.875.000
Pertsonala .....	3.460.000
Gazte-bulegoaren iharduera .....	1.100.000

### FINANTZ ZORRA 102.222.172 (%3,91)


Maileguen interesak .....	63.914.935
Maileguen amortizazioak .....	38.307.237

# egizabal

*Bidekurutzeta 13,*  
**BERGARA**

*Elisabete*





**XABIER ZUBIZARRETA (HB)**

Lehendabizi aurrekontuak duen kopuruaren garrantzia aipatuko nuke: bi Fundazioak gehituz gero, ia 2.800 milioikoa. Iazko aurrekontuen linea bera daukate aurtengoek. Udaletxeen errekurto zuzen eta ziurren falta aipatu nahi nuke. Aurrekontua bete ahal izateko, mailegu eta subentzio bidez 900 milioi pta. inguru helduko dira Arrasatera. Diputazioaren ondare foraletik etortzen den diru kopurua, aurten asko gehitu da, ia 800 milioiko diru-sarrera. Hala ere, zuzenki eta ziur etorri behar zaizkigun diru-kopuru horiek gehitu egin behar direla uste dugu. Horren ondorioz, zorpekuntza-indizeak gehitu egin zaizkigu, %15ean gutxi gorabehera. Bestalde, inbertsioen garrantzia ere azpimarragarria da, ia 1.200 milioiko inbertsioak.




**PEDRO M. RUIZ DE AZUA (EA)**

Aurrekontuen inguruan, esango nuke azpimarragarria beste behin argi eta garbi ikusi dela zeintzuk arduratzen garen herriko beharrez, nahiz eta eritzi politikoa desberdinak izan, herriaren alde egiteko akordiotara iristen garelako. Diru kontuei dagokioez, Eskola Politeknikoarekin goi mailako ikasketak egiteko sinatutako akordioa azpimarragarria iruditzen zait. Arrasate Musikali ere, bidea zabaltzen zaio egunen batean hartu behar den erabakia har dezan.

Santa Barbara parkearena aipagarria da, seguruenez inguruko parke politena izango dugularik.

Eta alde negatibo bezala, zintzilik gelditzen dena, kultur gintza dela iruditzen zait, baina normala da, horrenbeste gauzaren artean.




**JOSE LUIS LANA (PSOE)**

Ez dut uste aurrekontuez hitz egiterakoan gehiegi zehaztea merezi duenik. Orokorrean esango nuke iaz eta aurreko urteei jarraitzen dien aurrekontua dela, ildo beretik doana. Hortaz, ez diegu konfidantza handiegirik ematen. Gure kezkarik handiena ondorengo zinegotzi berrien lana nolabait lotu egingo duen aurrekontua guk erabakitzea litzateke. Gure ustez, aurtengo aurrekontua hauteskundeen ondorioz sortuko den Udalak erabaki beharko luke, eta ez oraingoak. Hori bai, egindako lana utzi beharko genieke zinegotzi berriei, oso kontuan hartzeko lana delako.



**XABIER LASAGA (EAJ)**

Udaletxean gaudenetik egiten dugun boskarren aurrekontua da. Azkenean alderdi batzuk, alderdikeriak alde batera utzi eta herriaren alde zerbait egiteko ahalegin garrantzitsua egin dugu, eta hori inportantea da. Hitz batean laburtzeko, aurtengoak transizio aurrekontuak direla esango nuke; zerbitzuetan hobekuntzak egin dira eta inbertsioei dagokienez, jarraipenezkoak dira. Udaletxean gastatzen den ehun pezetako bakoitza zertan erabiliko den, interesgarria izan daiteke: 46,8 pta. inbertsion erabiliko dira, 19,6 pta. pertsonal gastutan, 16,6 pta. subentzio eta ohizko gastutan, 12,8 pta. zerbitzutarako erabiliko dira, eta 3,9 pta. amortizazio eta interesak ordaintzen.



**AITOR OROBENGOA (EE)**

Orain arte, aurrekontuei ezetza eman izan diegu, baina aurtengoan errentagarritasuna daukaten proiektuak bultzatu nahi direlako, gure eritzia aldatu egin da. Besteak beste, guztiz onargarriak dira Eskola Politeknikoa eta Umezaintzaren alde egiten diren ahaleginak, aurrekontuen alde positiboak alegia. Aldiz, inolako errentagarritasunik ez duen proiektua ere agertzen da aurrekontuetan, frontoiarena. Egin den ahalegina ikusirik, baina era berean proiektu hori hor dagoela, aurrekontuei ezin diegu ez baiezkorik eta ez ezezkorik eman, horregatik abstenitu egingo gara, baina azpimarratuz noizbait ahalegin berezia egin dela hezkuntza alorrean.





Nor lehenago iritsi, hark du abantaila: aurrelaria izanez gero, gol aukera ederra, eta atezaina izanez gero, irteera bikaina. Argazkiko kasuan aurrelariak harrapatu zuen baloia, baita atezainaren gorputzera bidali ere.


**OPEL**   
Hobeak esperientziaz

**TALLERES OLA, S.A.**  
Erakusketa Arrasaten:  
Loramendi 2, Tfnoa: 79 05 86

  
**Kafetegia**

Iturriotz 7, Tfnoa: 79 04 67

**EMAITZAK**



**Finalerdiak**

Zuloak 2 ..... Adelaida 3  
Artzankos 3 ..... Kajoi 6

**Boskarrenetik zortzigarrenera**

Argi Ibili 0 ..... Cameruns 1  
S.I. Ugarte 3 ..... Arrasate Kirolak 6

**ATEZAINAK**

*Jesus Moreno Saria*



**Javier Murguzur.**  
11 gol.

**ZAPATIDOS**

OINETAKOEN AUTOZERBITZUA

Olarte 9, Tfnoa: 79 41 29  
ARRASATE

**ALCANADRE**  
TABERNA

**ZENBAKI  
SARITUA:  
63.420**

**Ebaki eta gorde txartel hau!**

Trikitik eta Kajoi tabernak Walkman bat zozkatuko dute astero. Astero aterako da zenbaki bat, eta saria jasotzeko epea 6 egunekoa izango da. Sariturik agertu ezean, hurrengo asterako gordeko da saria, eta antzeko sariren batekin trukatu ahal izango da Trikitin.

*Trikite*

**SOINUA • BIDEOA • T.Ba • KOMUNIKAZIOA**

Otalora 25, Tfnoa: 77 13 20 Faxa: 79 88 56 ARRASATE

71240



# Txutak

Zaldibarko jaia

Adelaida eta Bar Kajoi taldeen artean aterako da aurtengo Zaldibarko txapelketako txapelduna. Finala jokatu arte, ez dirudi oso egokia denik balantzea egiterik, beraz zuzenena finalari buruz hitz egitea izango da.

Kirol arloari dagokionez, ez dago zer aipatu gehiegirik. Zaldibarko azken partiduari arratsaldeko 5etan emango zaio hasiera, aurretik hirugarren eta laugarren postua erabakitzeke partidua jokatu delarik. Txapeldunaren

txapela nork jantziko, 6ak aldera jakingo da.

Zaldibarko txapelketako finala jai handia izan dadin, partidua gain, omenaldia eskainiko zaie Mikel Otxoa, eta Jesus Morenori. Sari banaketa ere egingo da, txapelketan parte hartu dutenetatik askok sariak jasoko dituztelarik: kiroltasuna, jatoritasuna, golak sartzeko trebetasuna eta golak ekiditzeko, besteak beste, sarituko dira Zaldibarren.

Agian, saririk ez dute jasoko, baina benetan merezi dutenak partiduetan arbitro lanak bete dituztenak dira. Guzti horientzat sari onena, dudarik gabe, larunbat arratsaldean Zaldibarko frontoia jendez gainezka egotea litzateke.

## DATORREN ASTEBURUAN

### FINAL ERDIAK

Igandean 11etan,  
Zuloak ..... Adelaida

Igandean 12etan,  
Artzankos ..... Bar Kajoi


## GOLEGILEAK

### Mikel Otxoa Saria



Elizaran

Jose Martin Elizaran (*Argi Ibili*).  
*Argi Ibili* taldea txapelketa guztian zehar gol gehien egin dituen taldea izan da. Beraz, ez da arraroa goleatzaileen sailkapeneko buru bertako jokalaria izatea. Taldeari eskertu beharko dizkio lortutako golak.



## SAN ANDRES AUTOAK

Araba Etorbidea 13,  
Tfnoak: 79 95 22 / 79 53 98  
ARRASATE



# AURORA-POLAR

Aseguruak


*Mikel Lasa agentzia*

Zerkaosteta 15 etxabehea, Tfnoa: 77 00 94, Faxe: 77 10 74 ARRASATE



Xabier Lasaga

## Aurrekontuen gorabehera



**H**azienda batzordeburua den aldetik, EAJko zinegotziarengana jo dugu, gaur bertan onartuko diren aurrekontuen inguruan entzuten diren kritikak eta beste, aztertzeko.

— Zergatik atzeratu da hainbeste aurrekontuen onarpena?

— Aurten, aurrekontuekin aguro ekitea garrantziko zela pentsatua genuen, gero hauteskunde kanpaina zetorrelako. Kontinuismo baten barruan zer gauza berri egin behar zituzten lehenbailehen aurkeztea komeni zela eskatu genien batzordeei. Azkenean, batzorde gehienak proiektu berriekin hasi ziren, gauzak konplikatuz, eta jendeak onartzeko presa larregirik ere ez zuela ikusten zen. Teknikoa gaiso ere egon da, eta hala ere lanera etorri da. Gainera, nahia go izan dugu hainbeste urtetan horretan ari izan den teknikoaren gidaritzapean gauzak egitea, hamabost egun gorabehera.

— %6a igotzearen erizpidea, zergatik?

— Azkenean 6,5 izango da. Beti izan dugu kriterio hori. Azkenean, gastu korrientea gehitu ez dadin, arlo horretan kontentzioa egitearren. Horrek ez du esan nahi beste partida batzuetan hala izango denik, pertsonalean ere 6,5 ipini dugu, baina konbenioaren arabera aldatu daiteke.

— EE-ak Ferixalekuko frontoia herriko hamabigarrrena izango litzatekeela esanez kritika gogorak egin dizkio hainbesteko inbertsioa egiteari.

— Nik bi gauza esango nituzke: Frontoi asko egon daitezke eta lantegi asko ere

, baina zer prestazio eta zer-bitzu eskaintzen dituzten ikusi behar da. Balorazio osoa egiteko egia dena ere ez da esan. Egia da asko balio duela, Diputazioak ez duela pezeta bat ere eman, eta horren azalpena beste politika maila batean aurkitu behar da. Baina 306 milioi balio duen arren, kontuan izan behar da proiektu horrekin lehen bi pisuetan mila metro karratu ateratzen direla. Inguru horretan bertan 400.000 ptatik gora ordaindu zen metro karratua, beraz, Udalari geratzen zaion leku horretan edozein gauza egin daiteke, patrimonioa da, sal-

du edo erabil daitekeena.

— Nola dago Udalaren zorra?

— Nik esango nuke, eta akats handirik barik, Gipuzkoako herrien artean ondoren dagoenetako bat dela Arrasate. Orain arte, mailegu zaharrekin konpontzeko daukagun zor bizia 250 milioikoa da. Iazko urtearen amaieran 450 milioiko beste mailegu bat eskatu genuen, 89-90a finantziatzeko. Aurtengo urtarrilaren lehen genuen zor-indizea 9,28koa zen, eta legeak ezartzen duen topea 25ekoa da. Aurtengo aurrekontuek beste 527 milioiko zorra planteatzen dute.

Orainartekoa eta hori kontuan izanda, %15,36ra iritsiko gara. %9a oso baxua da erantzukizun aldetik begirata ere. Oso egoera razionalan geratzen gara. Bada beste datu bat oso garrantzitsua: sarrera arruntei gastu arrunta kenduz gero inbertsioetarako libre geratzen dira 300 milioetik gora. Udalaren finantza egoera ezin hobea dela esango nuke.

— Auzoak, baserri girokoak eta kalekoak, desabantailan geratzen direla ere esan izan da.

— Nik uste dut hori demagogia dela, azkenean Arrasate bildutako sei auzo dira eta. Gezurra da auzoei ezer ez zaiela dedikatzen esatea. Inbertsioetan partidarik gehienak auzoetara doaz. Inbertsio garrantzitsuenak Udaletxetik gestio-natzen dira. Adibideak ipintzearren, ur eta saneamendurako 80 milioi daude, eta dena auzoetarako da.

— Alderdi sozialistak aurrekontuen onarpena hurrengo udalbatzari uztearen aldeko dela esan du. Zer erizten diozu?

— Uste dut responsabilitate mailatik planteatuta hori ezin dela egin. Alderdi bezala gure planteamendua iragapeneko aurrekontua egitea zen, hurrengo taldearentzat ezer lotuegi utzi barik. Lana prestatuta utzi dugu, baina horrek ez du esan nahi geroko politika hipotekatzen denik. Oso irtenbide txarra litzateke hurrengoei uztea, jende berria sartzenez, batanaz beste urriaraino udala aurrekontu barik egongo litzateke eta. Horrek esan nahi du aurrekontuak onartu beharrean kontu kitapena egingo litzateke. Horretan badugu esperientzia gu sartu ginenean ere aurrekontu barik sartu ginen eta.

— **66** —  
Aurtengo aurrekontuak iraganpenekoak izango dira





### Deba Bailarako Pilota Txapelketan bikain

Deba Bailarako Pilota Txapelketaren barruan, Aretxabalaren aurkako neurketa zeukaten Arrasateko pilotariak, eta astebete lehenago bezala, partidu guztiak irabazi zituzten. Emaitzak hauetxek izan ziren: alebinetan, 18-17; infantiletan, 18-7; gaztetan, 22-18; eta senior mailan, 22-14. Emaitza horiei esker, txapelketa honetan Arrasateko taldea, Bergarakoarekin berdinduta, sailkapeneko lehen tokian dago.



### Txirrindulariak ondo

Irabazterik ez, baina postu onak egitea lortu zuten bailarako txirrindulariek joan den asteburuko lasterketetan. Deban gazte mailako lasterketa burutu zen. Irabazlea Joseba Beloki arabarra izan zen, Ruben Ramos arrasatearrak 30 segundu galdu zituelarik. Kadete mailan, berriz, Zumaiako lasterketan, 116 txirrindulariren artean, Zigor Urain 8.a izan zen, Aritz Altube 9.a, J. M. Elizburu 12.a, eta Ruben Cabero 13.a. Agirreurreta, Gonzalez eta Rubiok ere lasterketa bukatu zuten. Azkenik, alebin mailan Dorletako Amak taldeko Oier Garrok, Oñatin egindako lasterketan laugarren postua lortu zuten.



### Mondrak etxean galdu

Hernani taldeak, liderraren zortea izan zuen joan zen asteburuan Atxabalpen jokaturako partiduan. Izan ere, hernaniarrek gehiegi merezi gabeko bi puntuak eta bi positiboak eraman zituzten Atxabalpetik, defentsa ona besterik erakutsi gabe. Hasiera hasieratik, partidua kontrola arrasatearren oinetan izan zen, baina kontraeraso baten ondorioz hernaniarrek lortutako golak pikutara bidali zuten arrasatearren lana. Aranburuzabala goleatzailearen falta izugarri nabaritu zen, sortarazitako aukerak ez zituzten aprobetxatu eta.

Onduline

TXOMIN HERIZ



eraikuntzarako materialak

Biltegia: Bidekruzeta 1, Tfnoa: 79 23 18



Eskaiola, pintura eta kortexozko apainketa


Tfnoak: 77 12 88 eta 77 12 75  
ARRASATE



# IÑAKI ELDUAIEN

*Kirolean baina pasatu barik*

# PODIUMA



Iñaki Elduaienek hogeitabat urte besterik ez dauzka, eta esan daiteke horietatik gehienak futboleko eman dituela. Hala ere, ikasi ere egin behar dela eta ondo pasatzeko adinean dagoela kontuan hartuta, Iñakirentzat futbola ez da sakrifizio handiegia. *"Futbola, modu batera hartu edo bestera, gogorra izan daiteke edo ez. Nik afizioz jokatzen dut, niretzat astean hiru aldiz entrenatu eta asteburuan partidua jokatzea nahikoa da. Horretaz gain, lagunekin eta, normal ateratzen naiz, gehiegi zaindu gabe"*. Batzuk bizitzako ordu gehienak kirolari eskaintzen dizkioten bezala, Iñaki Elduaienek kirola beste filosofia batez ulertzen du.

Txiki-txikitatik ekin zion Iñakik baloi baten atzetik korrika ibiltzeari, eskoletako taldeetan, Mondrako infantiletan, eta Mondrako gazteen. Mondra taldera igotzerik izan ez zuenez, San Andres taldeak fitxatu zuen, eta sailkapenean oso gaizki badoaz ere, gustora dabil bertan. *"Oso jende jatorra elkarru gara, aldageletan eta entrenamenduetan aparteko giroa izaten delarik. Gure sailkapeneko egoera penagarria dela egia*

*da, baina mailari eutsiko diogu. Ez dugu jaisteko beldurrik, matematikoki libra gaitzke eta"*.

Jakina denez, mailari eusteko partiduak irabazi behar dira, partiduak irabazteko golak sartu behar direlarik. Golak sartzeko orduan San Andres bat ere fin ez dabilen moduan, Iñaki Elduaien ere ez. *"Gol bakarra sartu dut, gainera ezertarako balio ez zuen gola, baina gehiago sartzeari espero dut. Neuri gehien aurrelari jokatzea gustatzen zait, eta azken aldean horixe jokatzen ari naiz, baina erdikaldean eta defentsan ere jokatu izan dut"*

Iñakik bere jokoa definitzerakoan dribblinga azpimarratzen badu ere, jolasten ikusi dugunok ezaugarritzat borondatea aipatuko genuke, bere aldean falta zaiena hain zuzen. *"Oso talde gaztea daukagunez, askotan ez dugu jakin urduritasunari aurre egiten, eta moralari eusten ere golen büt sartu dugutenean, berehala etorri izan gara bertan behera"*.

## ◆ Herrero memorialeko

Herrero memorialeko partiduak Musakolako kiroldegian jokatzen dira, baina euria egiten duenean futbol-zelaiaren egoerak partiduak bertan behera uztera behartzen du, futbol-zelaia konpontzen bost milioi erabili badira ere. Joan den astean ere, gauza bera gertatu zen eta baliteke hemendik aurrera Herrero memorialeko partiduak Atxabalpe ondoko futbol-zelaian jokatzea. Behintzat, irtenbidea hortik etorri zitekeela pentsatzen zen.

## ◆ San Prudentzio Lehiaketa

Datorren hilaren 27an, Aramaioko frontoian San Prudentzio pilota txapelketako finalak jokatuko dira, bertan arrasatearrak izango ez delarik. Aurrez Korta eta Zuazubiskarrek osatzen duten bikoteak finalerako pasea lortzea espero zuen, baina joan den asteburuan jokatutako partiduan, Mujika eta Mendizabal beasaindarrak osatzen duten bikotearen aurka 22 eta 1 galdu zuten. Arrasatearrak pozik egoteko arrazoi gehiegirik ez badaukate, besterik gertatzen zaie aramaiorrei, Uribarrenek, bertako pilotariak hain zuzen, Alonso-rekin batera gazteen finala jokatuko duelako. Ea zer egiteko gauza den aramaiorria!

## ◆ Arrasate Igeri Taldea

Arrasate Igeri Taldeko saskibaloi saileko taldeek, joan den asteburuko neurketetan, emaitza desberdinak lortu zituzten. Kadetetan "A" taldeak 95-29 irabazi zion Bergarari, "B" taldeak Almenen 51-35 galtzen zuen bitartean. Seniorretan berriz, arrasatearrek ozta-ozta galdu zuten Ondarraitz taldearen aurkako partidua, 59-55ko emaitzaz.



**Eamon Fagan**

"Parlance" Hizkuntz Eskolako zuzendaria

## UZTAILEAN ETOR ZAITEZ IRLANDARA GUREKIN

- Adin guztiak
- Klasea

eta askoz ere gehiago  
Informazioa: 77 06 83

INGELES IKASTAROAK URTE GUZTIAN ZEHA, IRLANDA, ESKOZIA ETA INGLATERRAN



**Miren Bengoa**

Irakaslea



# Elikadura eta anemia

**J**endartean maiz agertzen den gaitz edo eritasuna dugu anemia. Odoleko globulu gorriak substantzia bat daramate -hemoglobina, hain zuzen-oxigenoa biriketatik gorputzeko ehunetara, eta hauen artean muskuluetara, garraiatzeko derrigorrezkoa dena. Eta hemoglobina hori sortzeko gorputzak burdina behar izaten du.

Hemoglobina-kantitatea 13 gr/ml. tik behera jaisten denean, anemiaz hitz egiten da; eta orokorki, aldi berean globulu gorriak edo hematiak ere gutxiegi izaten dira, hau beti gertatzen ez bada ere.

Anemia arrazoi askoren-

gatik agertzen da, baina gehienetan burdin eskasiagatik izaten da. Emakumeen artean ugari izaten da, hilekoaren bitartez odol asko galtzen delako. Era berean, erresistentziatzko kirola egiten dutenen artean ere anemia sarritan agertzen da, fondo eta distantzia luzeko korrikalarien eta txirrindularien artean, batez ere. Honen zergatia, ondo ezagutzen ez bada ere, burdina asko galtzen dutelako izango da ziur aski. Burdinaren erreserbak gorputzean urriak dira, eta izerdiarekin batera burdina galtzen da: miligramo bat burdin gutxi gorabehera izerdi litro bakoitzean. Era berean, aktibitate muskularrak burdina galtzea dakar, hematiak eta

muskuluen zelulak apurtu egiten bait dira. Horretaz aparte, kirolari batzuek hesteetan mikrohemorragiak izaten dituztela ikusi da, eta honek ere burdinaren galera dakar. Horregatik, askotan kirolariak burdina gehiago behar izaten du.

Anemia agertzen denean, erreserbak agortzeko gutxi falta dela esan nahi du, eta hau gertatzen denean, errekuperaketa zaila eta motela izaten da.

Dietaren bitartez ez da asko absorbitzen, %10a bakarrik aprobetxatzen bait da. Animaliangandik datozen elikagaietako burdina hobeto aprobetxatzen da landareetakoa baino, nahiz eta hauen xurgaketa hobetzea posible

izan janari hauekin batera C bitamina hartuz gero. Lekarriak eta laboreak integralak direnean burdin kopuru dexentea izaten dute.

Baina anemiaren erreku-peraketak gehienetan burdin gehigarriak hartzea eskatzen du, pastilak adibidez; gutxienez 200 mg. egunean eta epe luzean.

Horregatik, dudarik gabe, anemia prebenitzea izango litzateke onena, eta entrenamendu gogorrek eginez gero, urtean behin edo bitan odol-azterketa egitea komeni da, eta hemoglobina-kantitatea txikia izanez gero, burdin gehigarriak hartzen hastea gomendatzen da.

*Arantxa eta Eukeni*



**ORION**

berria

Araba Etorbidea z/g  
Tfnoak: 79 07 44  
79 75 64

ARRASATE

**MUGARRI**



# Batuta


## Joseba Agiriano

Joseba Agirianok musikari, musiko bezala, urte gehiegi ez badizkio eskaini, bai ordea musikazale izateari. Musika munduan lanean hasten diren guztien modura, Joseba Agirianok lehenbizi solfeo ikasketak egin zituen.

*"Etxekoei musika gustatzen zitzaien, baina ez ziren musikoak. Musika, txikitatik nuen gustokoa, solfeoa ikasi ondoren flautina aukeratu nuelarik. Flautina menderatu nuenean herriko musika bandan sartu nintzen. Beranduago flauta eta xasofoi tenorea ikasi nituen. Egia esan, flautina ikastea asko kostatu zitzaidan, ikasten nuen lehen tresna zelako, baina beste biak ez horrenbeste".*

Aurrez esan bezala, flautina menderatu zuenean, hamahiru urte zituela, Joseba Agiriano bandarekin batera hasi zen. *"Igandetako dantzaldiak zoragarriak izaten ziren, herriko plaza jendez gainezka, ez orain bezala".*

Adinean aurrera egin ahala, beste askori bezala, Josebari soldaduskara joateko garaia etorri zitzaion. Soldaduskatik bueltatu eta gero, ezkondu



egin zen eta banda utzi. Musika Banda alde batera utzi bazuen ere, Josebak musikarako gustoa eta afizioa ez ditu sekula galdu. *"Orain ere, telebistan zerbait ikustekotan, kontzertuak ikusten ditut, ez beste ezer. Inguruan, Aretxabaleta edo Bergaran, kontzerturen bat dagoen bakoitzean bertara joaten naiz eta baita hemen daudenean ere".*

Sail honetan atera diren beste batzuen antzera, Josebak ez du ulertzen gaur egun Arrasatek musika bandarik ez edukitzea. *"Gure garaian tresna guztiak Udalarenak ziren, eta gainera ikasteko ez zegoen gaur adina baliabiderik. Seguru nago Arrasaten musika banda osatzeko behar den beste jende badagola. Gaur egun ez egotea ez dut uste bakarrik diru-arazoa izango denik".*

**Ez dut ulertzen Arrasatek musika bandarik ez izatea**

## Txio txioak

### Goikobalu Ejea de los Caballerosen irabazle

Juan Ignacio Ruiz de Alegriak zuzendutako Goikobalu abesbatzak, Ejea de los Caballerosen burututako XXII. Aragoeko Kantu Lehiaketa irabazi zuen, argazkian ikusten direnak gain 300.000 pezetako saria eskuratuz. Aipatutako lehiaketan hamabi taldek hartu zuten parte, Goikobaluz aparte, beste bi euskaldunak zirelarik: Elorrioko Berriotxo abesbatza eta Azpeitiko Julian Barennetxea abesbatza.

Koru guztiak bezala, Goiko Balukoek "Albada Bajo Aragonesa" kantua abestu zuten, eta gainera "Codoñerako jota popularra" eta "Dringilindron". Sari hau kontuan hartuta, Goikobaluk, urte t'erdian lortzen duen bigarrena da, San Vicente de la Barquerako lehiaketan ere beste bat lortu bait zuen.

Argazkian ikusten den bezala, Goikobalukoek poz handiz jaso zituzten Ejea de los Caballerosen lortutako sariak.



**LASA-AGUILERA**  
aholkularitza

Andra Mari auzunea 3, Tfnoa: 79 29 26 ARETXABALETA

- Lan-kontratuak
- Nominak
- Gizarte-aseguruak
- Babes juridiko-soziala
- Elbarritasuna
- Erretiroa
- B.E.Z.a
- Errenta aitopenak
- Dirulaguntza ofizialak
- Aseguru orokorrak



# Helduak eta euskara

**A**urreko bi asteetan umeez eta gazteez ari izan ginen, eta oraingoan helduei helduko diegu; izan ere, ezer gutxi egin ahal izango dute haur eta gazteek helduen babetik izan barik.

Helduen eskuetan daude gizartearen hari guztiak, botere gehiagoz edo gutxiagoz heldu bakoitzak badu erantzunkizunik euskararen etorkizunean, etorkizuna, beti ere, oraindik abiatzen den prozesu modura ulertzen badugu.

Euskararen normalizaziorako prozesuan, garrantzi ezin handiagoa dauka egoeraren larritasunaz jabe-

turik egoera hori aldatzen saiatu nahi duen belaunaldiak. Txepetxek "aintzindarien belaunaldia" izena eman dio giza-multzo honi. Izena jarria dauka, izana gehitu behar errealitate bihurtuko bada.

Helduek eredia emanez predikatu behar dute; baina nola?

- Intimitatean euskara erabiliz: norbera gustora dagoenean etxean, lagunekin... euskara izan dadin komunikazio tresna saiatuz. Geure inguru-ingurukoak euskarara ekartzeko gai ez bagara, nekez ekarriko ditugu urrunago daudenak.

- Lanean euskarazko zirkuitoak osatzen joanez:

pentsatu beharra dago ondoren datozen belaunaldiek geuk baino gaitasun handiagoa daukatela euskaraz. Pentsa ezazue adibidez zein nolako frustantea izango litzatekeen Eskola Politeknikoan injinerutza ikasketak euskaraz bukatuko dituztenek, ikasketak amaitu ondoren lanean erderaz egin behar izango balute ezinbestean. Zein arrazoi legoke soka hori mozteko? Arrazoi gandiezinik baldin badago, zergatik ezarri da euskara irakaskuntzan gero jarraipenik izan behar ez baldin badu?

- Euskara ez dakiten gurasoek euren seme-alabak etengabe motibatuz: ezin dugu pentsatu etorkinak

etsaiak direla, jakin erazi behar diegu eurok ere geurea bezalako prozesu zapaltzailea jasan izan dutela eta jasaten dutela oraindik ere. Esan behar zaie ez ditugula etsaitzat, eurok ere mesede galanta egin diezaioketela euskarari euron oinordekoak euskaldun izan daitezen saiatzen. Euskarak eurok ere behar ditu.

Eta bukatzeko, beste ohartxo bat: frankismoan gauza asko eta asko euskaraz egiterik ez bazegoen ere, ezin uka gaur egun gure ingurune hurbila aldatzea gure eskuetan dagoela neurri handi batean. Ilusioak berpiztu eta aintzindarien belaunaldi hori egia egiten has gaitezen.

Atalataikoan

## Zure zapatila berriak LORAMENDIn.



San Andres auzoan...

LORAMENDI  KIROLAK



• Iñaki Gurrutxaga "Harristi" •

Jai Batzordekoa

**H** amahiru urtez karneta poltsikoan izan du, baina auto-stopez ibili da Eskoriatzatik Arrasatera. Orain, denen artean dirua ipini eta 127 bat erosi diote, 15 urte ingurukoa, urdina. Hargatik deitzen diote "trumoi urdina". Oraindik poliki ibiltzen da eta nahiago du inorekin ibiltzea. Auto berria erosiko luke, baina "dirurik ez!". Aste honetan hartu du autoa lehengoaz, baina stopez jendea hartzeko asmotan dabil. Hainbeste urteren ondoren, urduri jarri da aparkatzerakoan, eta lagun batek aparkatu dio. Izan ere, aparteko lagunak ditu. Nori erregalitzen diote gaur egun autoa?



**ARRASATEKO II.  
IHARDUNALDIAK**

**UEUren  
laguntzaz**

**HITZALDIA**

Apirilak 23, asteartea

**NEKAZAL TURISMOA EUSKADIN  
ETA DEBA GARIAIAN:  
ORAINA ETA GEROA**

Agroturismoa zer den azalduko da.  
Hego Euskadin honetaz dauden Araudi eta Laguntzak.  
Nekazariei nola lagundu edo eragin diezaiekeen.  
Alderdi positibo eta negatiboak.  
Zer etorkizun izan dezakeen eta nola lagun dezakeen baserria iraun erazten.  
Iparraldeko esperientziak ere hitz egingo da.  
Deba-Garaian honetaz egindako azterketaren datu eta ondorioak eman eta komentatuko dira.

- **Hizlaria: MAITE ARISTEGI**  
(Gipuzkoako EHNEko Aholkulari Juridikoa)
- **Tokia: Monterron Kultur Etxea**
- **Ordua: Arratsaldeko 7etan**



ARRASATEKO  
UDALA



kutxa





# Besaiden gazte ekintzak

**G**aurkoan, ohitura den ibilaldi edo abenturatxoa kontatu beharrean, berri bat emateko asmoz idatziko dugu "hankamotz" hau.

Denok jakingo duzuenetz, Besaide M. E.aren barruan lantalde ugari dago; igandetako mendi irteerak, federazioa, eskizaleak etab. Oraingoan sortu berri den lan talde baten berri eaman nahi dugu.

Lantalde hau 14-18 urte bitartean dauden neska-mutilentzat ekintzak antolatzena dago zuzendua. Normalean, adin horretan dauden gazteek, baliabide eta diru falta dela eta, ez dute aktibitate larregirik aurrera eramaten, eta nolabait arazo horiek



konpontzeko asmoz eta mendizaleatasuna gazteengan suspertzeko asmoz, erraztasunak jarriko ditugu.


Urte guztirako programa landua dago, honako ekintzak aurrera eramango direlarik: eskalada, puentinga, orientazioa, espeleologia,

mendi irteerak, Pirinotara irteera, mendiko bizikleta, erreka-jaitsiera, etab.

Gazteon gustoko diren ekintzak izango direlakoan gaude, eta hasteko, datorren apirilaren 28an, espeleologia egingo dugu, Arrikutz leizean; horretarako kartelak

kalean eta eskoletan ikusiko dituzue, bertan informazio guztia jarriko duelarik. Besterik gabe, animatu eta apuntatu zaitezte eskatuko genizueke. Laster arte.

Hankamotz




**FOLK JAIALDIA**

**Apirilak 27, larunbata.**

**Amaian gaueko 10.30etan**


**The BALERY WORKS**





## Etorkizunaren erronka

- Gertu dagoen erakundea dugu
- **kutxa**, garai berriei aurre egiteko.
- Teknika- eta giza baliabiderik
- eraginkorrenekin, gailentzeko.
- Beharrian berriei egokituriko maila
- bikaineko zerbitzuez, eraberritzeko.
- Alor guztietan aurrera egiteko.
- Etorkizun gero eta lehiakorrago
- baterantz.



# kutxa

•  
• gipuzkoa  
• donostia kutxa  
•  
• caja gipuzkoa  
• san sebastián  
•



Aste gazte

"Sinistu iezadazu, edan ezazu ardoa. Ardoa bizitza da, gaztetasunaren iturria. Ardoa eta lagun alaiekin larrosen urtaroa itzultzen da. Goza ezazu bizitzaz, laburra da eta".

Omar Keyyam.



Espeleologia irteera

• Arrikruz leizea (Aratz). 14-18 urte bitarteko gazteei zuzendua. Apirilaren 28an (igandea). Izena emateko egunak: apirilak 22-23-24, 7.30etatik 8.30etara, Bessaideko bulegoan. Prezioa: 500 pta.

Ikastaroak

• Arteleku: Pintura Taile-rra. Maiatzaren 15etik ekainaren 15era, astelehenetik ostiralera. Matrikula: 13.000

pta. Izena emateko epea: maiatzak 8.

Lehiaketak

- Getafeko VI. Komiki Lehiaketa. 14 eta 30 urte bitartekoei zuzendua. Zuribeltzean edo koloretan. Neurriak: 18x24. Lanek lau eta sei orri bitartekoak izan behar dute. Sariak: 100.000 eta 50.000 pezetako sari bi. Lanak aurkezteko epea: apirilak 22.
- San Juan Jaietarako iragarlea aukeratzeko Kartel-Lehiaketa. Teknika libre. Neurriak: 50x79, formato bertikala. Saria: 50.000 pta. Epea: maiatzak 24.

Karnetak

- Auto-Stop karneta: urteko kuota 800 pta. (700 gazte-txartelakin).
- Nazioarteko kanping karneta: urteko famili kuota: 3.800 pta. 25 urtetik beherakoentzat 3.000 pta., 2.700

gazte-txartelarekin.

Bidaiak

- Nazioarteko Kanping-Federazioak bidaia eskaintza zabala proposatzen dizue udarako. Nahi izanez gero, emango dizuegu informazio gehiago.

Ihardunaldiak

- Liburutegi Publikoei buruzko IV. ihardunaldiak. Maiatzak 23-24-25. Donostian. Inskripzio-kuotak: a) maiatzaren 3ra arte: 12.000 pta. (5.000 bazkideentzat) b) maiatzaren 4etik aurrera: 15.000 (7.000 bazk.).

Bekak

- Eusko Jaurlaritza: Kreazio artistikorako bekak, laguntzak eta bidai sariak. Arloak: musika, antzerkia, dantza eta baleta, zinea eta argazkia, arte plastikoak, liburutegiak, artxibo eta mu-

seoak, arkeologia, ondare historiko-artistikoa, buruzko ikerketa lanak eta baita liburugintza, gazteria, turismoa eta kirolari buruzko ikerketa lanak ere. Epeak: bekei dagokienez, apirilaren 30era arte, eta bidai sarien kasuan urriaren 31era arte.

- Musika arloan trebakuntzarako Warwell bekak. Eskatzaileak: musikari gazteak, arlo honetan gaitasun eta trebetasun nahikoak egiaztatzen dutenak. Iraupena: 12 hilabete. Epea: maiatzaren 1era arte.

- 1991-92 ikasturtean Estatu Batuetan Osasun Publikoaren arloan ikasteko bekak. Eskatzaileak: ingelasa menperatzen duten lizentziatuak. Dirulaguntzak: joan-etorriko bidaia, matrikula eta hileko 1.450\$. Epea: maiatzak 4 (BOE 91-04-04).

Informazio gehiago:  
Gazte Zerbitzua,  
77 00 65

Deba Garaiko Udal Elkarteak

INGURUGIROARI BURUZKO IHARDUNALDIK

1. hitzaldi-elkarrizketa

Hondakin solidoen tratamendua

- A. Hondakin tratamendu sistemak.
- B. Bilketa selektiboa eta hondakinen birziklapena.
- C. Hiri-hondakin solidoen errauspena eta energi sorkuntza.

- Hizlariak: **Iñaki Ansoleaga. Industr. Injinerua. Blanca Yoldi Lopez. Biologoa. Alfonso Maillo Sanchez. Industr. Injinerua.**
- Eguna: **apirilak 18 osteguna.**
- Ordua: **arratsaldeko 7etan.**

Arrasateko Eskola Politeknikoa.  
Interesatu guztiei gonbidatzen zaie



## ETXEBIZITZAK

- Errenteria aldean lan egin behar dut; etxebizitzaren batean logela librerik ezagutuz gero, deitu 79 24 66 tfnora. Kepa.
- Arrasaten erdialdean etxebizitza salgai. 3 logela, 2 bainugela, sukaldea, egongela eta ganbara. Garajea aukeran. Tfno. 79 95 46, gaueko 8etatik 10ak arte.
- Etxebizitza salgai Zaldibarren, berriztua eta prezio onean. 78m<sup>2</sup>. Deitu konpromezurik gabe 77 12 22 tfnora, gaueko 9etatik aurrera.
- Arrasaten neska edo mutila behar da etxebizitza konpartitzeko. Deitu astelehenetik ostiralera, gaueko 8.30etatik aurrera. Tfnoa: 77 08 90.
- Aretxabaletan edo Arrasaten etxebizitza alokatuko nuke. Tfnoa: 79 01 00. Jose Luis.
- Bilbon etxebizitzaren batean logela librerik ezagutzen baduzu, deitu 76 16 68 tfnora.
- Bi oheko logela alokatzen da. Tfnoa: 79 07 73.
- Pisua salgai Iturriotz kalean. 89m<sup>2</sup>, hiru logela, egongela, sukaldea, komuna eta trastelekua, dena kanporantz. Dei egin 8etatik 10etara 79 76 56 tfnora.
- Etxebizitza salgai Obenerrekan. Guztiz berriztua. Egongela, bainugela, sukaldea eta logela bat jantziak. Beste bi logela. Trastelekua. 78m<sup>2</sup>. Bakarkako berogailua. Ganbara. Deitu inongorik gabe 79 88 83 tfnora. Gaueko 8etatik 10k bitartean.
- Emakumea etxeko lanak eta umeak zaintzeko prest. Tfnoa: 79 65 83.
- Neskak etxeko lanak egin eta umeak zainduko lituzke. Tfnoa: 79 87 88.
- Pertsona kualifikatua behar da nutrizio programak saltzeko, 23 urtetik gorakoa. Dei egin arratsaldeko 3.30etatik 7.00etara 77 14 81 tfnora. edo joan Nao de Santiago kaleko 4. era.
- Emakume euskalduna behar da etxeko lanak egin eta umea zaintzeko. Tfnoa: 77 04 21.
- Jaun-andereok:
  - Egunean hiru ordu libre eta telefonoa badituzu.
  - Beste edozein iharduerarekin bateragarria.
  - Irabaziak: 100.000tik 300.000 pta. hilean, Arrasate, Aretxabaleta eta Eskoriatzan.
  - Aurrez ordua hartuta bakarrik. Deitu 77 14 81 telefonoan 4etatik 7etara.
- Euskarazko klase partikularrak emateko irakaslea behar da. Tfnoa: 79 49 18.
- Esteitika ikasketak bukatu ditut eta lanerako prest nago. Tfnoa: 79 19 20

## SALEROSKETAK

- Seat Ibiza CLX ia berria saltzen dut. Lau urtekoa. SS-AB. Interesatuak dei egin gauez 79 24 01. Zele.
- Orbea karreretak 54 tailako bizikleta egoera onean salgai. Entrenamenduetarako rodiloa eta arropak (Lagun Arokoa eta estreinatu barik) guztia 20.000 pta.tan. Deitu iluntzeko 8etatik aurrera 79 90 03 tfnora.
- Aretxabaletako Kultur Etxeak motoreta erako lau bizikleta eta zortzi irristola erosi nahi ditu, denak bigarren eskukoak. Tfnoa: 79 01 05 lan orduetan.
- "Data o Tone" organo elektrikoa salgai. Berria eta prezio onean. Interesatuak dei egin: 79 80 55 tfnora. Gauean 8.15etatik aurrera.

- "Mascot" walkie talkie pareta salgai. Berriak eta prezio onean. Interesatuak dei egin 79 80 55 tfnora. Gaueko 8.15etatik aurrera.
- Bost laguntzako kanping-denda salgai. Aluminiozko hobiak. Tfnoa: 78 04 89. Arriaran.
- Kutxa izoztailea salgai. Aproposa etxean edukitzeko edo edozein produktu izoztua gordetzeko. Aukera ezin hobea (sei hilabetetan erabilia bakarrik). Interesatuak dei egin astearte eta ostiral bitartean 94 - 682 04 83 tfnora. goizez bakarrik.
- Peugeot 103 modeloko motorra salgai. Ondo zaindua, dokumentatua eta prezio onean. Interesatuak dei egin: 79 80 55 tfnora. Arratsaldez 19.00etatik aurrera.
- Yamaha 250 Special salgai. BI- 8802-AP. Dei 77 10 90 tfnora lanorduetan.
- Txakurkume bat erosiko nuke, (Arraza txikiakoa izan dadin). Dei 15.00etatik 17.30etara edo bestela 20.00etatik 22.00etara 76 64 47 tfnora.
- Bost laguntzako Hergo markako karabana abanize eta guzti salgai. Tfnoa 78 17 88.
- Egoera onean dagoen R-6 GTL bat erosiko nuke. Lanorduetan 77 09 40.

## DENETARIK

- Gazte batzuk buzonaketa lanak egingo lituzkete asteburuetan. Interesatuak dei egin: 79 80 55 tfnora. Arratsaldez 19.00etatik aurrera.
- La Merced-eko ikasle ohio afaria dugu maiatzaren 11n. Eman izena Hire liburudendan.
- Ohe biko sofa, Itxurazkoa, koltxoi eta guzti, eraman alde emango nuke. Dei 79 05 91 tfnora. Nahi duenak eraman.
- Eguerdiko sei t'erdia dira. Arrozesnea edarra edarra, edarra dago. Urbian euria ari du, baina, Matxinbentan aterri. Gorantziak. Aitziber zer moduz Goñin? Jo ta fuego "Txarabeltz" sektorea.

## LANA

- Neska euskalduna behar da Gasteizen etxeko lanak egin eta hiru urteko umea zaintzeko. Deitu 20.00etatik aurrera 945 - 23 01 05 tfnora.
- Neska prest etxeko lanak egiteko eta umeak zaintzeko. Tfnoa: 79 49 05.



ARRASATEN  
HILDAKOAK



Casado Fernandez Atanasio  
apirilaren 12an. 84 urte

ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK  
DEBALDEKOAK DIRA. TESTUA IDATZI ETA  
BIDALI GURE BULEGOETARA

TESTUA: .....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

Azoka kalea 1, 20.500 ARRASATE


Tfnoa: 77 08 15



# Zer nahiago?

## Elena Azpilikueta

Altamirako tela-dendakoa



- **Lotarako pijama ala kamisoia?** Pijama, ez zait enroskatzen eta.
- **Puntua egiterakoan, jertseiak ala bufandak?** Jertseiak, lan handiago ematen dute, baina politagoak dira.
- **Arropak plantxatzea ala jostea?** Plantxatzea.
- **Bazkal ostean, siesta ala kafetxoa degustazioan?** Kafea hartzea gustatzen zait, siestarik ez dut sekula egiten.
- **Bertsolariak ala trikitilariak?** Trikitilariak, askoz ere giro biziagoa jartzen dute.
- **Entzun ala esan?** Biak uste dut, entzun behar denean entzun, eta zerbait esan behar denean esan.
- **Oporrak hotelean ala kanping-ean?** Kanping-ean joatea gustatzen zait.
- **Neskatilak ala mutikotxoak?** Berdin zaizkit batzuk zein besteak.
- **Dantza egin ala begira egon?** Biak gustatzen zaizkit, eta biak egiten ditut.
- **Sanjuanak ala Santamasak?** Santamasak.
- **Erreala ala Bilbo?** Buf, hori galdera, hori! Bilbo esango nuke.
- **Udalaitz ala Besaide?** Udalaitz.
- **Ogi normala ala integrala?** Normala.
- **Janariak, gatz askorekin ala gutxirekin?** Askorekin jatea gustatzen zait.
- **Erratza ala aspiradorea?** Dendan aspiradorea derrigorrez, baina etxean erratza erabiltzea nahiago dut.
- **Euria ala elurra?** Elurra, askoz ere politagoa da.
- **Ardo beltza ala gorria?** Bat ere ez, ura gustatzen zait.
- **Argazkiak, koloretan ala zuri-beltzean?** Koloretan egiten ditut normalean.
- **Entremesak ala postreak?** Entremesak. Ez naiz batere gozozalea.

# Artxibotik

Arrasateko lurrikara

1755eko azaroaren 2an ikaratuta esnatu ziren arrasatear biztanleak. Goizeko zortziak aldera lurra dardarka hasi eta bazter guztiak astindu zituen. Dena den, hau ez zen San Francisco izan eta ez zuen ezbehar gehiegi sortu.

Kontuak kontu, hori dio Arrasateko Udaletxeko artxiboan dagoen dokumentu batek, eta fidagarria dirudi, Pedro de Barrutia aramaioar eskribano ospetsuak idatzia eta izenpetua bait da.

Dokumentua "kontuak" sailean dagoenez, lurrikarak eragin zituen gastuak da. Errez asma daiteke kontu guztia "sustoa" geratu zela.

"Pedro de Barrutia [...] dará y pagará sesenta maravedís, es asaver los quarenta y ocho deellos al Cavildo por la función solemne dela misa cantada [...] que celebró la villa el día dela purísima Concepcion delante de ntra Señora del rosario en havernos librado su divina Magestad sin daño alguno del temblor de tierra que cuesta villa se experimentó el día dos a las ocho dela mañana más o menos, y las doce restantes a la cofradía del rosario porel Consumo dela cera en dicha función".

A. O.

comercial  
san juan

Garibal 12,  
Tfnoa: 79 13 05

ENMARKETAZIOA

Zerkaosteta 4,  
Tfnoa: 79 13 84







La Mercedeko ikasleak kalistroetan. 1958

**M**

utilek mutilekin eta neskek neskekin ikasten zuten garaikoa

dagoen gelan *labores* ikasten zuten: mantilak eta brodatzen, etab. Adin desberdinetako neskek ibiltzen ziren elkarrekin, hori garbi dago argazkian. Gutxi batzuen izenak ez ditugu jakin izan, eta ordena nahasian emango dizkizuegu halabeharrez.

Zutik, ezkerretik eskuinerantz T. Andres, E. Zubiaga, M. Lasa, M. K. Uranga, M. Belategi, Pilar, M. K. Otxoa, Barandiaran, Zubizarreta, M. K. Bragado, P. Maskariano, M. K. Velez, B. Uriarte, Etxebarria, Uribetxebarria, M. T. Ormaetxea,

E. Zubillaga, Izurrategi, M. K. Aiani, E. Gomez, D. Lazpiur, I. Arriola, E. Moreno, I. Aranburuzabala, M. K. Altuna, Mari Sol, E. Telleria, A. Gorosabel, Natalia, M. K. Mazmela, A. M. Zeziaga, Zugasti, M. Gorostiza.

Belauniko, ezkerretik, Mari Sol, M. Okina, J. Zugasti, M. Mercader eta bere ahizpa, E. Juldain, Rodriguez, A. Lapuerta, Iturbe, M. A. Ugartetxea, Gorostiza eta Sagasta.

da argazki hau. Orduan mertzedariak Ospital Zaharrean zeukaten eskola. Behean behe-mailakoek ikasten zuten eta goian Batxilergoek.

Neskatila taldearen atzekaldean

**PUB HAIZEA**







**ENARA**  
OSAGARRIAK

Maalako Errabala 21  
20500 Arrasate  
Tfnoa: 79 62 32



# Umezaintza Haur-Eskola



ARRASATE PRESS ZEURE ETXEAN DOHAIN JASO NAHI BADUZU

EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN

IZEN-DEITURAK.....

HELBIDEA.....

HERRIA.....

Azoka kalea 1, -ARRASATE- Tfnoa: 77 08 15



**77 08 15**



## Oroipen zaharraren pozoia

Udako lehen larunbatean, urtero ohî bezala, erromeria izan genuen Kanpantxoko zelaian. Txosna -musikariak gainean zirela- erdikaldean, zuek zelai ertz batean, eta gu, mutilok, bestean. Txosnara hurbiltzeko, binaka egiten zenuten joan-etorria, agian gure begi aurretik paseiatzearen lotsa zuen elkarrizketan deuseztearren.

Plano batean zelaiaren hiru puntu beltzak -txosna eta bi gazte korroak- elkartu bagenitu, hiruki aldekie bat lortuko genuke. Baina ardoak buruak berotzen zituen ahala, triangelua isoszele bihurtuko zen; eta zuen lotsaren ondorioa belarriko kontutxoak baziren, gure lotsa, berriz, musikariek askatutako doinu ezberdinekin batera desagertu egiten zen airean. Hasiera batean, isileko kontutxo haïetaz jabetzean zetzan gure grina guztia, eta norgehiagoko hamaika harrokeria asmatzen genituen, gure izenak zuen belarrietan dantzan egin zezan. Eta bi pauso aurrera, bat atzera, beste bi aurrera, bost, sei, zazpi...triangeluaren oina desagertu arte. Musikariek orduan, gure egoera neketsuaz jabeturik, atalataiko bat hasiko zuten guztion eskuan kateatuz. Eta zureak, Altzaako Maddalen, nirearekin egin zuen topo, eta lipar hartako jotzean, izar guztiak ostu nizkion gauari, gure loturaren beroa dasta zezaten, gure beroaren lekuko izan zitezten.

Zutitu da agurea, eta erdiraino zurgatu duen whisky botilarekin oheratu da, gaueko izarrei begira.

*Cecile Lemaire*

**ITURRIOTZ taberna**

**GIRORIK**

**JATORRENA II**

Tfnoa:79 16 04



**J. M. Heriz**

**Konpromezurik gabeko  
aurrekontuak**

Otalora Lizenziatua. Arrasate



## 22 ASTELEHENA

- 18.30 **Teletestua**. Era guztietako iragarki eta abisuak.
- 19.30 **Bapirulauke**, umeen saioa, aste honetan S. Frantzisko Xabier ikastolan grabatua.
- 20.00 **Berriak**, asteburuan Arrasaten gertatutako guztiaren berri, Koldo Rodriguezen eskutik.
- 20.15 **Mondrasport**, ATBren kirol-saioa, Beñardo Kortabarriak zuzenduta. Arreta berezia Zaldibarreko Futbito Txapelketako finalari eskainiko zaio.




- 20.35 **Saltsa Maltan**, Jaione Olabek langostino eta txanpinoi entsalada epela prestatuko du.
- 20.45 **Erreportaia**: Arrasateko II. Moda Jaialdia.
- 20.50 **Berriak** (errepikaldia)

## 23 ASTEARTEA

Ez da emisiorik egongo.

## 24 ASTEAZKENA

- 19.00 **Teletestua**.
- 20.00 **Berriak**, Arrasateko albistegia, Koldo Rodriguezek aurkeztua.
- 20.20 **Zenbat buru, hainbat aburu** mahaingurua. Gaia: Arrasateko artista plastikoak.




21.10 **Berriak** (errepikaldia)

## 25 OSTEGUNA

- 11.00 **Teletestua**
- 12.00 **Berriak** (bezperakoa)
- 12.20 **Zenbat buru, hainbat aburu** (bezperakoa)
- Berriak** (errepikaldia)

## 26 OSTIRALA

- 19.00 **Teletestua**
- 20.00 **Berriak**, ATBren informatiboa, Begoña Garaik aurkeztua.
- 20.20 **Erretratoa**, J. R. Elortzak zuzentzen duen elkarrizketa. Gonbidatua: Antton Markaide. Donstiako Aiete auzoan dagoen abade mondragoetarra.



- 20.50 **Musikantoi**, Patxi, Pepe, Asier eta Pepek egiten duten saioa.
- Berriak** (errepikaldia)

## 27 LARUNBATA

- 11.00 **Teletestua**
- 12.00 **Berriak** (bezperakoa)
- 12.20 **Erretratoa** (bezperakoa)
- 12.50 **Musikantoi** (bezperakoa)
- 13.30 **Berriak** (errepikaldia)



**ARANBURU  
COTEMAR**

**Garraio agentzia**

Zaldizpe 3, Tfnoak: 78 52 34 / 79 53 99 ARRASATE



**ALTUNA**

*Lurrindegia  
bisutegia  
drogeria*

Maalako Errabala  
Tfnoa: 79 14 23

## SUKALDIAK

Zure etxebizitzarako apainketa-  
-proiektuak egiten ditugu

**eya**

Sukalde eta bainugelako altzaritan  
espezializatutako denda

Ignazio Zuloaga 4, Tfnoa: 79 05 07



## Telebegi

Zilegi bekit oraingoan nostalgia. ETB "Oscar" saria jasotako pelikula zaharrei buruz ematen ari den sailean "Lawrence of Arabia" eta West Side Story ikusi bait ditut berriki.


Musikazale ere banaizenez, aipa ditzadan bi pelikula hauetarako Maurice Jarrek eta Leonard Bernsteinek egindako musika zoragarriak. Bigarrenaren kasua, batipat, harrigarria egiten bait zait oraindik nola klasikoa deitzen diogun musikan murgildurik zegoen gizona gai izan zen garaiko gazteentzat hain erakargarria izan zen musika sortzeko.

Hala ere, dezepzioa izan da nabaritu dudan sentsazioirik biziena. Bi pelikula hauek -beste asko bezala- irudi eta soinuuzko espektakulu handi moduan daude planteatuta, handitasuna medio sortzen dute lilura, horretan datza beraien inpaktoa.

Eta pantaila txikiaren erdiko herenean ikusi ditudan Nardo eta Riff, Auren eta Sherif Ali liliputiari horiek ez dira gai izan ez lilura ez eta inpaktorik sortzeko nigan. Ez dakit honekin zerikusirik ote duen, baina miniatuzko bonsai torturatuak ere ez ditut batere gogoko.

Garai bateko Todd-ao, Panavision eta 70 mm. ko sistema handi haiek telebistaren tamainara murriztu dituztenek asma dezatela orain ikusleok neurri berean murriztuko gaituen tramankulua, proportzioa gorde dadin.

Mikel Irizar



huyar aldizkariko zuzendari ohia eta idazle oparoa. Aurki fikziozientziako nobela bat argitaratuko dio Elkar argitaletxeak.

**Iñaki Irazabalbeitia** birritan izan dugu Arrasaten azkenaldi honetan: UEUrekin batera antolatutako Arrasateko II. Ihardunaldiak aurkezteko eta Teknologia eta Asmakizunez buruz ATBn izandako mahainguruan parte hartzen. Ez genekiena hauxe da, Europako Espaziorako Agentziak (ESA) astronautak behar zituela eta, estatu espainiarrean deia zabaldu zuenean, Iñakik astronauta izateko eskaria egin zuela, alegia. Zoritxarrez ez zuten onartu. Iñaki fisikaria da, hizkuntzak dakizki, ikerketa lanak egin ditu, kirolari amorratua, UEU eta El-



**H**amaikak hamar gutxira arte luzatu zen *Alkatearekin berbetan* saioa, legealdi honetako azkena hain zuzen ere. **Jon Andueza, Alberto Gorritiberea** eta **Asier Aranguren, Iñaki Mendiguren** moderatzailea bezala, euren apunteekin agertu ziren. Paperik ekarri ez zuten bakarria Alkatea bera izan zen, **Xabier Zubizarreta**.

## Telebelarri

◆ Legealdi honetan udaletxean inoiz ez dugu pakturik egin, baina akordiotara heldu gara».

X. Zubizarretak *Alkatearekin berbetan* saioan

◆ Boletin ofizialak ez ditut irakurtzen. Txostenak eta eskutitzak, aldiz, bai».

X. Zubizarretak *Alkatearekin berbetan* saioan.

◆ Hamabi bat talde izango dira lokalik barik daudenak Arrasaten».

X. Zubizarretak *Alkatearekin berbetan* saioan.





## ARIES

Martxoaren 21etik  
Apirilaren 20ra

Argi egongo zara eta ez duzu denbora alperrik pasako. Orain arte ilun ikusten zenituen eginbeharrak ez direla hainbestearainokoak konturatuko zara eta benetan gustura hartuko duzu eskura datorkizuna. Bizipoza.



## LEO

Uztailaren 23tik  
Abuztuaren 23ra


Ipurtarin egongo zara eta ez da erraza izango zurekin solasaldi formalik izatea. Kontuan izan bat baino gehiago egongo dela zure beharrea eta zure aholkua behar beharrezkoa izango duela. Ezusteko diru sarreraren bat egon liteke.



## SAGITARIUS

Azaroaren 23tik  
Abenduaren 21era


Hola uste ez baduzu ere, jendeak ondo hartzen zaituela konturatuko zara, denak zurekin egoteko desiratzen egongo bait dira. Borondate onak ez du dirurik ematen, baina bai bestelako saririk garai honetan ugari ez dagoena.



## TAURUS

Apirilaren 21etik  
Maiatzaren 20ra

Benetan maiteminduta zaude eta datozen egunetako bizimodua horretan oinarrituko da; maitasunaz baino ez zara arduratuko bai zureaz eta bai besteenez. Baliteke lelo samar azaltzea bestearen aurrean, baina ez egin jaramonik haien esanei.



## VIRGO

Abuztuaren 24etik  
Irailaren 23ra

Parrandaz parranda zabilza eta makal samar zaude. Atsedena hartzea komenigarri izango zaizu aurrera egiteko, bestela baliteke benetan gaisotzea eta. Ondo etorriko zaizu bai zure osasunerako eta bai zure poltsikorako.



## CAPRICORN

Abenduaren 22tik  
Urtarrilaren 20ra


Jende ugari ezagutuko duzu datozen egunetan Capricorn, eta merezi dutenak sailkatzen arituko zara. Onar ezazu jendea den bezelakoa, denok bait ditugu geure alde onak eta txarrak, eta noizbait maitagarriak izaten ere bai bait dakigu.



## GEMINI

Maiatzaren 21etik  
Ekainaren 20ra

Sekulako bakea nabarituak zenuen honez gero zeure barnean. Joan da jada Marte Geminion esparrutik eta barne-bakea nagusituko da batez ere. Halere, ezazue lorik hartu eta odola bizkortzeko ariketak egin, bestela...



## LIBRA

Irailaren 24etik  
Urriaren 23ra

Bizipoza darizu alde guztietatik eta honek bapo jan erazten dizu. Ondorioak ez dira oso atseginak izaten, zu zeuk behintzat ez dituzu horrela hartzen. Gehiegikeria horiek lehenbailehen moztea komeni zaizu, egoera honetan jarraitu nahi baduzu.



## AQUARIUS

Urtarrilaren 21etik  
Otsailaren 19ra

Zonioneko izango zara egin duzun eginahalaren ondorioz, ederki merezitako saria jasoko duzulako. Honek aurrera egiteko animoa emango dizu eta alperrikako lanik ez dagoela konturatuko zara. Liluragarri egongo zara bestearen begietarako.



## CANCER

Ekainaren 22tik  
Uztailaren 22ra


Bai, bai, esaten ohiuak dituzu denak, baina oraingo honetan konturatuko dira bai, zu zeuk ere izaten dituzula haserretzeko arrazoiak. Batek baino gehiagok aldegingo du zure ingurutik, bai, izango duzun lebitaz izututa.



## SCORPIO

Urriaren 24etik  
Azaroaren 22ra

Eginbeharrak jan egiten zaitu Skorpio eta ez duzu izaten gauza bat bera ere formal egiteko betarik. Lasaitzeko moduren bat aurkitu beharko zenuke eta egunak patxadaz hartu, bestela ez duzu, ez, luzaroan iraungo gazte.




## PISCIS

Otsailaren 20tik  
Martxoaren 20ra

Etzegiroa izango da benetan gustoko izango duzuna, bertakoak bait dituzu benetako lagunak, inoiz kalerik egiten ez dizutenak. Itxura fisikoaz arduratzen hasi zara interesen bat dela medio. Jarraitu horrela zulatzen duenak lortzen du eta.

# BIDEO-EMANALDIA

## Excalibur



**Tokia:** Monterron Kultur Etxea

**Eguna:** apirilak 20

**Ordua:** arratsaldeko 4etan

**Prezioa:** 50 pezeta

**Sarrerak:** Monterronen

**Antolatzailea:** Arrasateko Udaleko Euskara Batzordea



# LETRAKIT

erakusketa ibiltaria

**Arrasaten**

**Apirilak 19-24**


**Biteriko aparkalekuan**



**EUSKAL LITERATURA  
ETA  
ALFABETATZEAREN HISTORIA**



# Zer dago Ferrerias kalean ?



**ESKAINZA  
IKUSGARRI BAT**

*Ordenagailu eta inprimagailu bat erostean,*

*4 video joku  
WORKS programa  
eta GWBASIC programa*

*oparitzen dizkizuegu.*

**FAST**

Ferrerias 50, Tfnoa: 77 14 75. ARRASATE

**2000**